

KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2020ko urria / 309. zenbakia

www.oñati.eus  



Tokikoa sustatuz

Diruz lagundutako erosketa-bonuen kanpaina berria jarriko du abian udalak urrian, 110.000 euroekin. Gainera, dendari eta ostalariei zuzendutako diru laguntza deialdi berria egin du eta Oñatiko Merkataritza Biziberritzeko Plana eguneratzen ari da.

Oñatiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren **AURRERAKINA**

➔ Udalak jendeagirian ipini du Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) berrikusi eta eguneratzeko Sabai Arkitektoak enpresak egindako txostena

➔ Herritarren Aholku Kontseiluak eta parte-hartze prozesuan herritarrek egindako ekarpenak jasotzen dira bertan. Udalak ez du oraindik ezer erabaki.

➔ HAPOak finkatzen du, besteak beste, non eta zer eraiki ahal izango den Oñatin 2030a bitartean



www.oñati.eus
webgunean
kontsulta daiteke
dokumentua



HERRITARREN EKARPENAK

noiz eta nola

Udalak Sabai Arkitektoak enpresari enkargatu zion Oñatiko HAPOa (Hiri Antolamendurako Plan Orokorra) idazteko lana 2018ko otsailean, eta orain aurkeztu duen dokumentua HAPOaren aurrerapena da.

Arkitekto taldeak proposatzen dituen irizpideak, parte-hartze saioetan herritarrek egindako proposamenak, eta herri mailako Aholku Kontseiluak egindakoak jasotzen dira bertan. Udalak ez du oraindik ezer erabaki.

Orain herritarrok dugu HAPOaren aurrerapen dokumentuari gure iradokizun edo ekarpenak egiteko aukera. Azaroaren 13ra arteko epea dago ekarpenak egiteko udaletxeko HAZ bulegoan.

HAPOaren AURRERAKINA PROPOSAMEN NAGUSIAK

■ IRIZPIDE OROKORRAK

Hazkuntza-eredu zentralizatuaren aldeko apustua

Antolakuntza eta hazkuntza eredu kontrolatua eta zentralizatuaren aldeko apustua egiten du HAPOaren aurrerakinak. Etxebizitza arloan egon daitezkeen garapenak herrigunean kokatzea proposatzen da. Ildo horretan, egun **Cegasak** hartzen duen lurzorua eta **Berezaio** guneko zati bat eraldatzea proposatzen da, eta erdiguneko hirigintza gunek zaharberritu eta errematatzea. Periferiari dagokionez, **Zubillaga** eta **Olabarrietako** hiri-lurzuaren mugaketa egiten da, eta **landa-auzoetako** populazioa finkatzea du helburu.

Jarduera ekonomikoen arloan ere, HAPOaren aurrerakinak ez da beharrezkoa ikusten lurzoru berriak planifikatzea. Gaur egun industrial gisa kalifikatuta dauden lursailak nahikotzat jotzen dira aurreikusten den hazkundeari erantzuteko.

Ingurune fisikoari dagokionez, herriko gunek natural eta espazio berdeen arteko lotura jarraitua egitea proposatzen da, eta gerriko edo ingurabide berde bat sortzea hirigunearen inguruan, nekazaritza erabilerarako eta natura nahiz paisaiaren ikuspegitik balio handikoak diren lursailak babestuz.

■ LURZORUAREN SAILKAPENA

Saihesbidearen beste aldeko lurzoruen sailkapena aldatzea

Goian aipatutako irizpideetan oinarrituz, egungo Arau Subsidiarioetan hiri-lurzoru bezala sailkatuta dauden ondorengo hirigintza-eremuak desklasifikatzea proposatzen da, 'lurzoru urbanizaezinak' izatera pasatuz: 'I.23 **Azkoagain**' (28.872m²), 'I.25 **Igartua**' (14.800m²), 'I.38 **Santa Ana**' (10.505m²), 'I.39 **Urrutxu** kirolgunea (60.243m²) eta 'II.8 **Okomardin**' (10.817m²).

Saihesbidearen beste aldean, herrigunetik aldentuta, uharte izaera duten eremuak dira eta horregatik proposatzen da gunek horien hiri-lurzoru izaera aldatzea, nekazaritza-erabilerarako edota paisaia nahiz natura ikuspegitik balio handia duten eremuak babesteko asmoz.

Ildo berean, **Zubillaga** eta **Olabarrietako** hiri-lurzuaren mugaketaren ondorioz, beste 44.931m² lursail urbanizaezinak izatera pasatuko lirateke, eta **Olapotoko** basoak (49.0007m²) ere hiri-lurzoru izaera galduko luke, urbanizaezin izateko.

Bestalde, indarrean dauden Arau Subsidiarioetan 'urbanizagarri' izaera duten **Ugarkalde**, **San Martin**, **Migelena**, **Munazategi** eta **Urrutxu** gunek hiri-lurzoru gisa sailkatzea proposatzen da HAPOaren aurrerakinean. Lazarraga-Garai finka, aldiz, urbanizaezin sailkatzea proposatzen da. Aurrerapen honetan proposatutako eredian ez da lurzoru urbanizagarririk programatzen.

Horrenbestez, guztira 1.983.999m² lursail geratuko lirateke sailkatuta hiri-lurzoru gisa, Oñatiko azalera osoaren %9,51. Gainerako %90,49a urbanizaezina izango litzateke.

Bizitegi izaera duen hiri-lurzuaren inguruetan (Zañartu, Garagaltza, Berezaio, Murgia eta Goribar) balio handiko nekazaritza eta abeltzaintzako lurzuaren kategorizazioa egitea proposatzen da, 'zero kilometro'ko ekonomia zirkularra aktibatu ahal izateko lursail estrategikoak diren neurrian.

(Hurrengo orrira)

2018ko irailaz geroztik hainbat informazio saio, tailer eta erakusketa antolatu dira herritarren ekarpenak jasotzeko HAPOaren inguruan



■ ETXEBIZITZA


600 etxebizitza berri eraikitzeako aukera

Oñatiko biztanleriaren hazkunde-aurreikuspenak aintzat hartuz, 2022-2030 epealdirako 600 bat etxebizitza berri eraikitzeako aukera jasotzen du HAPOaren aurrerakinak.

Horietatik 178, gaur egungo Arau Subsidiarioetan aurreikusita, baina eraiki gabe daudenak dira: **Kasablankan 60**, **Kurtzekuan 60**, **San Martinen 32**, **Ugarkalden 6...**

Bestalde, gaur egun **Cegasak** hartzen duen lurzorua eta **Berezaio** eremuko zati bat (Eroski inguruak) eraldatzea proposatzen da, orotara 390 etxebizitza berri eraiki ahal izateko. **Berezaio**n 190 etxebizitzak eraiki ahal izango lirake (76 babestutakoak) eta **Cegasako** gunean 250 etxebizitza (100 babestuak). Horrek, jakina, aurrena Cegasaren jarduera lekualdatzea eskatuko luke.

Irizpide gisa, babes sozialeko etxebizitza guztiak alokairu erregimenekoak izatea proposatzen da.



Ondoko planoan adierazten den moduan, Cegasa eta Berezaio gunen eraldaketa proposatzen du HAPOak, etxebizitza berriak eraiki ahal izateko. Oñati erreka inguruan ibai-parke bat egokitzea ere proposatzen da,

■ JARDUERA EKONOMIKOA / INDUSTRIA

Kalifikatuta dauden lursailak agortu, lurzoru berriak kalifikatu barik

Jarduera ekonomikoak garatzeko aurreikusten den hazkunderako, gaur egun jada industrierako kalifikatuta dauden lurzoruak erabiltzea proposatzen da, sail berriak birkalifikatu gabe. Gaur egungo plangintzaren arabera garatzeko dauden eremuak (**Zugaztui**, **Migelena**, **Munazategi**, **Urbiet...**) gunek agortzea proposatzen da, 59.174m² guztira, nekazaritza edo abeltzaintza jarduerarako, nahiz paisaia edo ingurumen aldetik balio estrategiko altua duten lurzoruen birkalifikazioak saihestuz.

■ ESPAZIO LIBREAK: BERDEGUNEAK

Ibai-parkea sortu, Cegasatik Berezaoraino

Berezaio eta Cegasa gunetarako proposatzen den eraldaketa sakonaren eskutik, Oñati erreka berreskuratu, bistaratu eta **ibai-parke** bat sortzea proposatzen da, Cegasatik Berezaorainoko oinezkoen ibilbide bat ahalbidetuz erreka inguruan.

Ildo berean, Zuibibari, Motxon eta Ultzegein kaleen arteko erreka zatia ingurumenaren aldetik berreskuratzea proposatzen da.

Bestalde, **Ugarkalde**, **ETEO**, **Olapoto** eta **San Martingo** parkeak kontsolidatu eta beraien arteko lotura bermatzea proposatzen da, hiri antolamendurako ardatz gisa hartuz.

HAPOaren aurrerakinak proposatzen duen Espazio Librean Sistema Orokorra 82.414m²-ko azalera hartuko luke (6,45m²/biztanleko), Lurzoruaren Legeak eskatzen duenaren (5m²/biztanleko) gainetik.

Zer da HAPOA

HAPOa (Hiri Antolamendurako Plan Orokorra) gure herria hurrengo urteetan nola garatuko den planifikatu eta arautzen duen dokumentua da. Etxebizitzak non eta zenbat eraiki ahal izango diren, non industriak, non kultur eta kirol ekipamenduak, non errepideak, nola babestuko ditugun natur baldiaideak... Hau da, nolako herria eta, neurri batean, nolako bizimodu nahi dugun finkatzen duen dokumentua da.

Parte-hartzea

Udalak Sabai Arkitektoak enpresa kontratatu du HAPOa idazteko, baina, aldi berean, ahalegin berezia egiten ari da herritarren parte-hartzea sustatzeko. Alde batetik, Lurzoruaren Legeak agintzen duen 'Aholku Kontseilua' eratu da, herriko elkarte eta talde ezberdinetako 20 bat ordezkari osatutako organoa. Horrez gain, hainbat tailer eta informazio saio antolatu dira herritarren ekarpenak jasotzeko.

Epeak

Diagnostiko fasearekin hasi zen HAPOa idazteko prozesua. Orain, aurrerakina aurkeztu du arkitekto taldeak, eta dokumentu horri ekarpenak egiteko epea ireki da. Herritarrek egindako iradokizunak aztertu ondoren, udalak hasierako onspena emango dio eta udalaz gaindiko erakundeetara igorriko du dokumentua. Herritarrek alegazioak egiteko epea ere irekiko da. Udalaren asmoa da agintaldia amaitu aurretik onartzea HAPO berria.



Arrasate Logopedia zentruko lan-taldea.

Logopedia zentrutik haratago

Arreta goiztiarra eta psikologia zerbitzua ere eskaintzen dituen esperientzia handiko zentru integrala

Zeintzuk dira zuen zerbitzuak?

Orain dela 27 urte logopedia zerbitzuarekin hasi ginen, baina herritarren eskaerak eta beharrak ikusita, gure zerbitzua zabaltzen joan gara. Momentu honetan, logopedia zerbitzuaz gain, arreta goiztiarra zerbitzua eta psikologia zerbitzua ere eskaintzen ditugu.

Zehazki zertan datza Logopediak?

Logopedia, komunikazioa ahalbidetzen duten aspektuak ezartzean, erraztean eta indartzean datza. Hau da, lengoaian, hizkuntzan eta ahotsean laguntzea.

Lengoian, ukermena zein adierazmena lantzen ditugu. Ahozko hizkuntzan, bestalde, artikulazioa, hitz totaltasuna... Irakurketa eta idazketa ere lantzen ditugu. Horrez gain, aho arnasketa, irenketan arazoak eta ahotsarekin zeri-

kusia duten haur zein helduen disfoniak lantzen ditugu.

Momentu zail hauetan sumatu duzue psikologia zerbitzuaren behar gehiago?

Psikologia eskolarrean beti bezala lanean dihardugu, hau da, TDAH edo AFHID (Arreta Faltaren, Hiperaktibotasunaren eta Inpulsibotasunaren Desoreka) eta ikasketa teknikak lantzen.

Baina, egia esan, psikologia sanitarioan, bai igarri dugu, bai umeetan eta baita helduetan ere, hainbat kezkei buruzko kontsultak areagotu egin direla. Zentzu horretan, gure zerbitzuak, antsietatearen, estresaren, depre-

sioaren, ondoez emozionalaren eta autoezagutza beharrraren lanketa ere eskaintzen ditu. Gure pazienteei egokitutako psikoedukazio tailerrak ere antolatzen ditugu.

—

«Psikologia sanitarioan, bai igarri dugula, bai umeetan eta baita helduetan ere, hainbat kezkei buruzko kontsultak areagotu egin direla»

Lehen arreta goiztiarra zerbitzua aipatu duzue. Nola funtzionatzen du?

Gipuzkoako Foru Aldundiak baimendutako Arreta Goiztiarreko zentrua gara. Berau, esku-hartzeen multzo bat da, 0-6 urte bitarteko haurrei, familiari eta inguruneari zuzendua. Horiek pertsona bere osotasunean hartu behar dute eta diziplina arteko orientazioa duen profesional talde batek planifikatu behar ditu. Gure kasuan, logopedia, psikologia eta fisioterapia zerbitzuak eskaintzen ditugu.

Funtzionarioamenduari dagokionez, detekzioa osasun arloko profesionalak, hezkuntzakoek, gizartekoek zein gurasoek egin dezakete. Ondoren, gizarte ongizaterako foru erakundeko orientatzeko eta balioesteko zentrori bideratuko da kasua. Bertan, arreta goiztiarrerako eskabidea bete eta balioeste taldeko profesionalak esku-hartze terapeutikoak zehaztuko dituzte. Orduan sartuko ginateke gu; logopeda, psikologoa eta baita fisioterapeuta ere, adingabearen eta bere familiarren beharretara egokitutako programarik egokiena ezarri.




centro de logopedia
arrasate
logopedia zentrua

Ultzegin 11 behea • T. 943 78 12 50 • www.arrasatelogopedia.com

Bonoak.eus

Diruz lagundutako erosketak-bonuak jarriko ditu abian udalak
110.000 euro bideratuko ditu ekimenera, herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorean kontsumoa sustatzeko helburuarekin



www.bonoak.eus plataformaren bidez kudeatuko dira erosketak-bonuak

URRIAN jarriko da martxan ekimena

Erosketa-bonuen ekimena kudeatzeko erabiliko den plataforma digitalari (www.bonoak.eus) azken ukituak ematen ari da udala. Urrian zehar prest egotea espero dute, eta ordutik aurrera eskuratu ahal izango dira bonuak, kanpainara atxikitzen diren establezimenduetan kontsumitzeko. Laster jakinaraziko da data zehatza.

➔ Oñatin erroldatutako 16 urtetik gorako edozein herritarrek eskuratu ahal izango ditu bonuak, 200€-ko mugarekin, pertsonako

➔ www.bonoak.eus atarian, edo ekimenera atxikitako establezimenduen bidez eskuratu ahal izango dira bonuak

➔ %20 eta %5 arteko diru laguntzak aplikatuko dira produktu edo zerbitzu motaren arabera. Abenduaren 31 baino lehen kontsumitu beharko dira bonuak

Bonoak.eus, diruz lagundutako erosketak bonuen ekimena jarriko du abian udalak, herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektorean kontsumoa sustatzeko helburuarekin. Covid-19ak herriko saltoki eta establezimenduetan izan duen eragin negatiboa arintzea da helburua, udalerriko hiri-ekonomia suspertuz eta tokiko establezimenduetan kontsumo kontzientea sustatuz.

www.bonoak.eus web aplikazioaren bitartez kudeatuko dira erosketak-bonuak eta, beraz, aplikazio horretan alta eman beharko dute ekimenera atxiki nahi diren establezimenduek (10 langiletik beherakoak izan beharko dute) eta bonuak eskuratu nahi dituzten herritarrek.

%20 ETA %5 ARTEKO DIRU LAGUNTZAK

Erosketa-bonuetan %20 eta %5 arteko diru laguntzak aplikatuko dira, produktu edo zerbitzu motaren arabera:

- Elikagaiak ez diren produktuak: %20
- Jatetxe, taberna, kafetegia eta ostaluetan: %20
- Zerbitzu pertsonaletan (ile-apaindegiak, estetika zentroak...): %20
- Osasunarekin lotutako zerbitzuak: %5
- Hezkuntza ez-arautuan: %5
- Elikagaien salmentan: %5

Erosketa-bonuen gehienezko kopurua 200€-koa izango da, eta pertsona bakoitzak 200€ko muga izango du bonuak erosteko. Bonoak ezingo dira frakzioetan banatu. Erosketaren zenbatekoa bonoaren balioa baino txikiagoa bada, diferentzia ez da eskudirutan itzuliko.

EROSKETA-BONUAK ESKURATZEKO BI BIDE

Oñatin erroldatutako 16 urtetik gorako edozein herritarrek eskuratu ahal izango ditu bonuak, bi modutara: www.bonoak.eus aplikazioaren bidez, edo kanpainara atxikitako establezimenduen bidez.

Bonoak.eus plataformaren bidez bonuak eskuratzeko, aplikazioan alta eman eta erosketak egingo den establezimendua eta bonuaren zenbatekoa aukeratu beharko da. PDF formatuko fitxategi bat jasoko dugu emailen (aplikaziotik bertatik ere deskargatu ahal da).

Bonuak establezimenduen bidez eskuratzeko, erosketak egin nahi den establezimendura joan, eta saltzailearen bitartez egin beharko da bonuak eskuratzeko tramitazioa.

Erosketak-bonuak 2020ko abenduaren 31 baino lehen kontsumitu beharko dira. Hortik aurrera ez dute baliorik izango, eta ez da esku-dirurik itzuliko.

Udalak 110.000 € bideratuko ditu Bonoak.eus ekimenera. Denak salduko balira, gutxi gora behera 500.000 - 600.000 euro inguruko kontsumoa sustatuko dela aurreikusten da.

» **MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZU SEKTOREKO ENPLEGUARI EUSTEKO DIRU LAGUNTZAK**

119 merkataritza eta ostalaritza enpleguari diru laguntza eskaerak onartu ditu udalak

► Oraingoz **99.471** euro banatu ditu udalak ► Diru laguntzaren bigarren zatia (argindarra, ura eta hondakin bilketa gastuei dagokiena) ordaintzea falta da oraindik

COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondorioz jarduera etenda eduki behar izan zuten hirugarren sektoreko autonomoei eta 10 langile baino gutxiagoko mikroenpresei zuzendutako diru laguntza deialdia egin zuen udalak maiatzean.

Hala, establezimendua itxita eduki behar izan zuten hilabete bakoitzeko 300€-ko laguntza finkoa eman die udalak, eta langile kopuruaren araberrako diru laguntza ere bai: 60€ - 35€ artean langileko eta hileko (langile kopuruaren arabera).

Bestalde, establezimendua itxita egon den hilabeteetan argindarra, ura eta hondakin bilketari dagozkien gastuei aurre egiteko laguntzak ere emango dizkie udalak.

Establezimendu bakoitzak 2.000 euro jaso ahal izango ditu gehienez.

119 ESKAERA ONARTUTA

Uztailaren 30era arteko epea zegoen eskaerak aurkezteko, eta dena 123 eskaera jaso zituen udalak, baina horietako lauk ez zituzten baldintzak betetzen. Beraz, 119 eskaera onartu ziren eta, dagoeneko, dirulaguntzaren zati finkoa ordaindu die udalak, 99.471 euro guztira.

Dirulaguntzaren bigarren zatia, ura, argindarra eta hondakin bilketa gastuei dagokiena, ordaintzea falta da oraindik. Eskatzaileek irailaren 25era arteko epea zuten ordainagiriak aurkezteko, eta horiek aztertu ondoren ordainduko die udalak.

» EZ-OHIKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA

36.864 euro bideratuko ditu udalak Covid-19ari aurre egiteko merkataritza eta ostalaritza sektorean egin behar izan dituzten inbertsioak diruz laguntzera

► Azaroaren 13ra arteko epea dago eskaerak aurkezteko

Covid-19ari aurre egiteko, tokiko merkataritza eta ostalaritza sektoreei laguntzeko programa jarri zuen abian Gipuzkoako Foru Aldundiak, udalen bidez bideratzeko. Merkataritza eta ostalaritza sektoreetako jarduera ekonomikoa, enplegua eta lehiakortasuna mantentzea da programaren helburua, tokiko jarduera sustatuz eta indarberrituz.

Oñatiko udalak 36.864 euro jaso ditu programa horretatik, eta ez-ohiko diru laguntza deialdia egitea erabaki du herriko merkataritza eta ostalaritza sektoreko enpresei zuzenduta. Helburua da, Covid-19ari aurre egiteko egin behar izan dituzten inbertsioak, azterketak, eta erosi behar izan dituzten ekipamenduak diruz laguntzea.

Kostu hautagarrien %60 artekoa izan ahal da dirulaguntza, 3.000 euroko mugarekin

DIRUZ LAGUNDUKO DIRENAK

Covid-aren ondorioz, segurtasun eta osasun protokoloak bete ahal izateko, lokalak eta lan egiteko moduak egokitzeko egin behar izan dituzten inbertsioak, horretarako egin behar izan dituzten azterketak, eta ekipamenduak erosteko egindako

gastuei aurre egiteko diru laguntza emango du udalak. Maskarilla, eskularru, gel, bata eta antzeko materialetan egindako gastuak ez dira diruz lagunduko.

Diruz lagunduko diren inbertsioak martxoaren 14tik azaroaren 6ra bitartean egindakoak eta ordaindutakoak izan beharko dira, eta kostu hautagarrien %60 artekoa izan ahal da dirulaguntza, 3.000 euroko mugarekin. Aurrekontu baliabideak nahikoa ez badira eskaera guztiei erantzuteko, onartutako gastuaren araberrako proportzioan murriztuko dira laguntzak. Eskaerak egiteko epea azaroaren 13arte egongo da zabalik.

ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Oñatiko herritarrek egiten duten merkataritza gastu osoaren %22,7 kanpora joaten da

► Urtean 10,2 milioi euro kanpoko establezimenduetara edo merkataritza elektronikora doala kalkulatzen da ► Oñatiko merkataritza eta zerbitzu sektorearen inguruko diagnostikoa egin du Siadecok

Oñatiko herritarren merkataritza gastu potentziala 44,9 milioi eurokoa dela estimatzen da, eta hortik %77 (34,7 milioi) herriko establezimenduetan egiten da eta gainerako %22,7ak (10,2 milioi) ihes egiten du, kanpoko establezimenduetara edo merkataritza elektronikora (%34).

Bestalde, kanpoko erosleek Oñatiko komertzio eta zerbitzuetan egiten duten gastua (erakartakoa) 3,2 milioi eurokoa dela kalkulatzen da; beraz, Oñatiko merkataritza saldoa negatiboa da (-6,9 milioi)

Udalaren enkarguz, Siadeco enpresak Oñatiko merkataritza eta zerbitzu sektorearen inguruan egindako diagnostikoan irakur daitezkeen ondorioetako batzuk dira goian aipatutako horiek.

MEHATXUAK ETA AHULEZIAK
Merkataritza elektronikoa (herritarren %37k diote, gero eta gehiago erosten dutela Internet bidez, batez ere 16-35 urteko gazteek) eta aisialdiarekin lotuta kanpoan kontsumitzeko ohitura dira herri txikietak merkataritzak dituen lehiakide gogorrrene-



Merkataritza Plana berritzeko diagnostiko faseko txostena irakur daiteke QRan



takoak, baina ez bakarrik. Beste ahulezia batzuk ere jasotzen dira Siadeco-ren txostenean. Hala, merkataritza eskaintzan hutsuneak ikusten dira (batez ere arropa, oinetako eta teknologia berrien arloetan) eta ostalaritza arloko eskaintzaren kalitatea eta aniztasuna murrizta dela kontsideratzen da, kontuan hartuta sektore garrantzitsua dela merkataritzaren osagarri gisa.

Aparkalekuei dagokienez, herrigunean dagoen erreferentziako plaza kopurua eskasa

» **Herriko merkataritza eskaintzan hutsuneak ikusten dira batez ere arropa, oinetako eta teknologia berrien arloetan**

dela dio Siadecoren txostenak, kontuan hartuz distantzia handi samarra dagoela merkataritza eremuaren eta biztanleriaren %45 hartzen duten auzoen artean.

Horiez gain, merkataritza sektoreko profesionaleri zuzendutako formazioan dauden hutsuneak, teknologia berrien erabileran dituzten gabeziak, eta udalarekiko koordinazioa eta elkarlana indartu beharra aipatzen dira hobetu beharrekoen artean. Udalaren inplikazio handiagoa es-



katzen dute merkatariak, hutsik dauden lokalen erabilera sustatzeko neurriak hartuz, sektoreari aplikatzen zaion araudia (obrak, irekiera baimenak...) malgutzuz, zerga eta tasak murriztuz, eta dirulaguntzak areagotuz, besteak beste.

Txanda elkarteak indartzearen garrantzia ere aipatzen du txostenak, eta herritarren artean, bereziki gazteekin, sentsibilizazio lana egitearen garrantzia ere azpimarratzen du.

Siadecok egin duen diagnostikoaren arabera, Oñatin egun dauden establezimenduen %22,2k ilun ikusten du bere etorkizuna, eta belaunaldien arteko erelebo komertziala eteteko arriskua nabarmena da; establezimenduen %83k oso aukera gutxi ikusten dute familia barruan jarraipena emateko negozioei.

INDARGUNEAK ETA AUKERAK

Dena ez da negatiba, jakina. Herriarrek, oro har, positiboki balo-

Ekintza Plana, urte amaierarako

Siadeco-k egin duen diagnostikoa abiapuntutzat hartuta, Oñatiko merkataritza eta zerbitzu sektorea sustatzeko hurrengo urteei begirako Ekintza Plana landu nahi du orain udalak, eta *Ikertalde* aholkularitza enpresa kontratatu du lan hori koordinatzeko.

Herriko merkataritza biziberritzeko, hurrengo urteetarako lan ildoak markatuko dituen gidaliburua izango da plan hau. Lan ildoak, ekintza zehatzak, lehentasun mailak eta aurrekontu orientatiboak jasoko dira bertan, besteak beste.

Gisa honetako lanetan esperientzia handia duen *Ikertalde*-k gidatuko du prozesua, baina ahalegin berezia egin nahi da *Oñatiko Merkataritza Biziberritzeko Plana* modu partekatuan lantzeko. Sektoreko eragileen iritzia jasoko da, eta herri mailako eragile sozio-kulturalen eta, nola ez, bezero-komunitatea osatzen duten agente eta herritar guztien iritzia ere barneratuko da. Horregatik, udalak guztion lankidetzak eskatzen du.

» Herriko establezimenduen %83k oso aukera gutxi ikusten dute familia barruan jarraipena emateko negozioari

ratzen dute herriko komertzioek eskaintzen dituzten produktuen kalitatea eta berezitasuna, eta jasotzen duten arreta.

Ildo horretan, azpimarratzekoa den datu bat ere eman du Siadecok: azen urteetan herrian erosteko joera kanpoan erostekoa baino gehiago zabaldu da herritarren artean: Oñatin bertan duela hiru urte baino gehiago erosten dutela dioten herritarrek —%39—, kanpoan gehiago

erosten dutela diotenak —%22— baino gehiago dira.

Udalak herriko merkataritza eta zerbitzuak sustatzeko eta indartzeko, eta sektoreko eragileekin elkarlanean jarduteko duen konpromisoa ere indargune garrantzitsua dela dio Siadecok.

Enpleguari dagokionez, 325 pertsona inguruk lan egiten dute Oñatin sektore honetan, eta gehienak herrian bertan bizi dira. ■

4S
Ingeleseko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Izen ematea
ZABALIK
Oraindik badaude
plazak!
943 53 36 57
4sgoiena@gmail.com

100 m²
Distantziamendua
eta higie-ne neurriak bermatuta

Maite Aiestui Kortabarria
20 urte baino gehiagoko
esperientzia irakaskuntzan

**Helduen oinarrizko ikastaroa
martxan !**

www.4sgoiena.com

Ikastetxeen inguruko espazioak egokitzekeo neurriei jarraipena emango zaie

Helburua da ikasleen sarrera-irteerak modu mailakatu eta seguruan egitea, pilaketak saihestuz eta segurtasun-distantzia mantenduz

Oñatiko ikastetxeek eta Udalak elkarlanean eskolen inguruko espazio publikoak egokitzea adostu dute, Covid-19ari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriak bermatu ahal izateko. Helburu nagusia ikasleen sarrera-irteerak modu mailakatu eta seguruan egitea da, pilaketak saihestuz eta segurtasun-distantzia mantenduz.

Irailean Hezkuntza komunitateek eta Udalak ezarritako neurrien lehen balorazioa egin dute, hartutako neurrien eraginkortasuna eta egokiera aztertuta. Orokorrean, hartutako neurriek bere funtzioa bete dutela ondorioztatu da; erraztu egin dute hauren sarrera-irteera mailakatua eta segurtasun-distantzia mantentzea.

Momentuz, beraz, ikastetxeetako inguruan hartutako neurriei jarraipena ematea adostu da, eguraldi txarrarekin ere testatu ahal izateko, eta horren arabera berriz ere baloratu eta beharra sortuz gero, egokitzapenen bat izan dezakete neurriek, orain



▲ **ELKAR HEZI.** Arantzazuko Ama kalea itxita egongo da Eroskiko parkinarean sARBIDETIK BEREZAO AUZORAKO BIDEGURUTZERAINO.



▲ **IKASTOLA.** Bidebarrieta kaleko zenbait aparkaleku kendu eta oinezkoentzat bideratuko dira.



▲ **URGAIN-ERREKALDE.** Ikastetxekeo sarrerako parkina ibilgailuentzat itxita egongo da astean zehar, oinezkoentzat bideratuz.



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net  



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

BALORAZIO POSITIBOA

» Orain arte ondo funtzionatu dute hartutako neurriek. Orain eguraldi txarrarekin ere testatu nahi dira. Beharra sortuz gero, egokitzapenak egin ahal izango dira

arte izan duten bezala.

HARTUTAKO NEURRIAK

- **TXANTXIKU IKASTOLA**
Bidebarrieta kalean dauden zenbait aparkaleku plaza kendu eta oinezkoentzat bideratzea.

- **URGAIN-ERREKALDE**
Ikastetxeko sarrerako parkina ibilgailuentzat itxiko da astean zehar, oinezkoentzat bideratuz eta asteburuetan baimenduta egongo da bertan aparkatzea.

- **ELKAR HEZI IKASTETXEA**
Arantzazuko Ama kalea itxita egongo da Eroski supermerkatuko parkinaren sarbidedetik Berezaio auzoko bidegurutzeraino. Behetik gorakoan bi noranzkoetan zirkulatu ahal izango da, biribilgunetik Eroskiko parkineraino, baina ikastetxeko sarrera nagusiaren ingurua trafikoarentzat itxita egongo da. Goitik beharkoan berriz, Arantzazuko bidetik edo Berezaio auzotik datozen ibilgailuek sahiesbidera jo beharko dute herrigunerantz joateko.



Mugikortasun jasangarri eta aktiboak gorakada nabarmena izan du ikasleen artean. Patineteen erabilera %64 hazi da eta bizikletarena %76.

Mugikortasun seguru, autonomo eta jasangarria sustatuz

Herriko ikastetxeek kontingentzia planak prestatu dituzte, udalarekin elkarlanean, Covid-19ak ezarritako egoera berrira egokitu eta hezkuntzarako eskubidea bermatzeko helburuarekin, prebentzioa eta osasuna oinarri hartuta betiere.

Testuinguru horretan kokatu eta ulertu behar dira ikastetxeen inguruak eraldatzeko hartu diren neurriak ere. Ikasleen eta hezkuntza komunitate osoaren mugikortasun seguru, autonomo eta jasangarria erraztu nahi da: oinezkoak ibiltzeko eta egoteko espaloiak zabalduz, eta oinez, patinetez zein bizikletaz mugitzea bultzatuz.

Ildo horretan, seme-alaben autonomia garatzeko aukera kontuan hartzeko deia luzatzen zaie gurasoei, 'Juntalekuak' baliatuz, ikastetxetarako joan-etorriak gelakideekin egin ditzaketela gogoratuz.

Eskolara gurasoekin joanez gero, ikastetxe inguruan ahalik eta denbora gutxien egiteko eskaera egiten da, jende pilaketak saihesteko, eta autoz joan behar izanez gero, dagokion tokian aparkatzeko.

Ikastetxeen inguruetan bizikletentzako estalitako aparkalekuak ipiniko ditu udalak



Partaidetzazko Aurrekontuak 2019-2020 egitasmoan herritarrek hobetsitako proposamenen artean hirugarrena izan zen, bizikletentzako aparkalekuak ipintzea ikastetxe eta ekipamendu publikoen inguruetan. Eta aukera ezberdinak aztertu ondoren, estalpeak hiru tokian jartzea erabaki du udalak: **azoka** ondoan, **Santa Marina** plazan eta **Zuazola-Larraña** institutu ondoan. Estalpeak hornitu eta instalatzako lehiaketa arautuko duen baldintza zerrenda ere onartu eta deialdia egitea erabaki du udalak. Hiru estalpeen aurrekontua 42.153 eurokoa da (BEZ kanpo) eta hornitzeko epea 12 astetan finkatu da.

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40



Erreleborik ezean, Kale Zaharreko elkartasun lokala itxi egingo da

Datorren urteko uztaileira arteko epea eman du *roperoa* koordinatzen 20 urte daraman Jose Antonio Urteagak

Urtetxo batzuk daramatza errelebo eske, eta oraingoan ultimatuma ematea erabaki du. Datorren urteko uztaileko erreleborik azaltzen ez bada, Kale Zaharreko elkartasun lokala itxi egingo da. Lanerako eta laguntzeko jenderik ez da falta, baina lokala koordinatuko duen pertsona edo talde bat behar da. Jose Antonio Urteaga bera laguntzen jarraitzeko prest dago, baina ardura beste norbaitengan utzita. Hogei urte daramatza *roperoa* koordinatzen, eta atsedena behar du.

Urtetxo batzuk daramatzazu errelebo eske, eta oraingoan ultimatuma ematea erabaki duzu.

Bai, uztailean esan nuen beste urtebetez jarraituko dudala, baina erreleborik ez badator, itxi egin beharko dugu lokala, pena handiz. Laguntzeko jendea badago, oso jende prestua

gainera, baina hemen arduradun bat beharrezkoa da, eta neu ere gero eta justutxoago nabil. Hogei urte dira, jada, proiektua koordinatzen, eta nire agenda arintzen hasi beharra daukat.

Zure emazte Socorrok ere beste horrenbeste urte darama hemen lanean.

» **Hogei urte daramat proiektua koordinatzen, eta urte asko dira. Laguntzen jarraitzeko prest nago, baina ardura nagusia nire gainetik kenduta.**

Bai, hala da. Socorrok ere ordu asko sartzen ditu hemen. Bera arduratzen da lokalerira iristen den materialaren lehen sailkapena egiteaz. Baina orain ama zaindu beharra ere badaukagu eta ezin iritsita gabilta.

Zer da, zehazki, eskatzen duzuna?

Roperoa koordinatuko duen norbait behar da. Pertsona bat edo talde bat. Laguntzeko jenderik ez da falta; lantalde ona eta prestua dago, baina proiektuaren ardura hartuko duen norbait behar da.

Profil edo ezaugarri berezirik

Behar al du koordinatzaileak?

Hau kudeatzeko ez da aparteko ezaugarri edo ikasketarik behar. Umore ona behar da, logika pittin bat eta behar duten pertsona eta kolektiboei laguntzeko gogoia. Dedikazioa eskaini behar zaio, baina hori ere flexiblea da, eta ardura hartzen duenak erabakiko du zenbat ordu eta noiz eskaini proiektu honi. Jende asko dago Oñatin lokal hau kudeatzeko gai dena.

Zein da koordinatzailearen lan edo egiteko nagusia?

Kontainer zuriaren bidez edo lokalera zuzenean iristen zaigun materialetik zer gorde behar den eta zer ez erabaki, eta material hori guztia nola antolatu eta ze irteera eman pentsatu behar du. Nahiko lan samurra da, baina norbaitek egin beharrekoa.

Ekonomikoki, urteko aurrekontua ez da iristen 1.000 euro-tara (inpresorako tintak, etiketak, gestioaren bat han-hemenka...). Lokalaren alokairua eta funtzio-namendu gastuak (argindarra...) udalak ordaintzen ditu.

Zu laguntzen jarraitzeko prest zaude, ezta?

Bai, ni laguntzeko prest egongo nintzateke ahal dudan bitartean, baina, esan bezala, erantzukizun nagusia nire ginetik kenduta.

Hermansoloña taldeak esku artean dituen beste proiektuen (Argentina, Sahara...) gestioaz neu arduratuko naiz, oraingoz.

Eta *roperoa* koordinatzeko erreleborik azaltzen ez bada?

Pena handiarekin, baina lokala itxi egin beharko dugu. Ez dugu egun batetik bestera itxiko eta hemen dagoen material guztia

20 urteko ibilbidea

Argentinako Elkartasun taldeak (gerora Hermansoloña izena hartuko zuenak) 2001 ean jarri zuen martxan *roperoa*. Hamabost urtetan zehar 35 laguntza kontainer bidali zituzten Oñatirekin anaitutako Jose C. Paz hiriko Euskal Etxera. Baina aduanako traba eta oztopoak tarteko, azken bost urteetan batez ere Caritasekin eta herriko beste elkarte eta erakunde batzuekin (Larrañako errefuxiatuak, Acesma, Hotz-Oñati...) egiten du lan, berrerabilgarri dagoen materiala jaso eta beharra dutenei emanez.



Kale Zaharreko 52an dago Hermansoloñak kudeatzen duen ropero edo elkartasun lokalak

» **Laguntzeko jenderik ez da falta; lantalde ona eta prestua dago, baina koordinatzaile bat behar da, ardura bere gain hartuko duena**

» **Roperoa oso beharrezkoa da Oñatin. Caritas, Larrañako errefuxiatuak, saharatarrak... beharra daukan jende askori laguntzen diogu**

botako, gauza asko eta ona dagoelako hemen, baina dagoen stock-a administratzen jarraituko genuke, hustu arte, material gehiago jaso barik.

Pena handia litzatekeela diozu; *roperoa* oso beharrezkoa dela Oñatin.

Niretako disgustu ikaragarria izango litzateke lokal hau ixtea. Urte asko daramatzagu zerbitzu hau ematen, herriak baloratu eta eskertu egiten du, laguntzaile talde polita dago (sahararrak, Larraña aterpekoak, Hotz-Oñati taldekoak...). Pena handia litzateke hau dena bertan behera gelditzea.

Roperoak zerbitzu inportantea eta beharrezkoa egiten du. Oñatiko etxeetan soberan eta berrerabiltzeko moduan dagoen materiala (arropak, oinetakoak, jostailuak, altzariak, ontziteria, maletak, liburuak, eskolarako materiala...) jasotzen dugu eta beharra dutenei ematen diegu: Caritasi, Larrañako errefuxiatuei, Tindouf-eko kanpalekuetako sahararrei, eta Oñatin beharra duten beste familia askori ere bai. Hotz-Oñatik antolatutako

kanpainetan eta Nepalen aldeko elkartasun taldearekin ere kolaboratu izan dugu.

Beharra daukan jende askorik laguntzen diogu eta, gainera, material asko jasotzen dugu eta kalitatezkoa. Beraz, pena handia litzateke proiektu hau ezerezean gelditzea, koordinatzaile bat falta delako.

Ba al duzu norbait agertuko den itxaropenik?

Tamalez, boluntariotza ez dago modan gaur egun, gizarteko beste hainbat arlotan ikusten dugun moduan, baina Oñatiko herriak askotan erakutsi du esku-zabala dela, solidarioa dela, eta espero dut norbait edo talderen bat animatzea.

Zer esango zenioke jendeari?

Animatzeko. Ez dela lan zaila, lagun asko egiten direla hemen, beharra daukanari laguntzea gauza oso polita dela!. Etxean sobran ditugun gauzekin jende askori laguntzen ari gara, eta hori gauza ederra da. Material asko dago, kalitate onekoa gainera, eta ez dezagun proiektu polit hau galtzen utzi. ■



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com

**IRAGARRI GUREAN,
ETA OÑATIKO
ETXE GUZTIETARA
ERAMANGO ZAITUGU**

publi@onati.eus

'BERTAKOAK' APARKATZEKO TXARTELA

2021erako altak eta bajak tramitatzeko epea urriaren 1etik 30era zabalduko da

Datorren urtera begira 'BERTAKOAK' aparkatzeko txartela eskatu edo ezeztatu nahi duten herritarrek urriaren 30a baino lehen egin behar dute eskaera udaletxeko HAZ bulegoan (aurrez hitzordua eskatu 010 telefonora deituta). Aurtan 'Bertakoak' txartela duten herritarrei automatikoki berrituko zaie, kontraktorik adierazi ezean.

Trafiko zuzendaritza nagusian behean zehazten diren kaleetan erregistratuta dauden ibilgailuen jabeek eskuratu ahal izango dute 'Bertakoak' txartela, baldin eta jabea ibilgailuaren helbide berean erroldatuta badago.

Zona 5 Gunea (AITA MORTARA): Kale Zaharra 1-29 eta 2-48, San Anton, Aita Madina, Aita Mortara, Foruen plaza, Portu kalea, Unibertsitate etorbidea, Maiatzaren 1. plaza, Bakardadeko Ama eta Zumeltzegi kalea.

Zona 6 Gunea (BIDEBARRIETA): Bidebarrieta kalea, Zubibarri, Motxon, Atzeko Kale, Kale Barria, Errementari, Ramon Irizar eta M. Aozaratza



Kurtzekua arean amaigabe dagoen eraikinaren derrigorrezko salmenta prozesua bertan behera geratu da

Epaitegiak bailogabetu egin du prozesua

Kurtzekua 1.34 hirigintza guneko 8.2 partzelan amaigabe dagoen eraikinaren eta orubearen derrigorrezko salmentaren bigarren lizitazioa hastea erabaki zuen udalbatzak, aho batez, 2019ko ekainaren 6ko osoko bilkuran, *Promociones Kurtzekua* elkarteak zituen hirigintza alorreko betekizunak bete ez izana egotzita. Jende agirian egon zen epean eskaintza bakarra jaso zuen udalak, *Mojasoro S.L.* enpresarena, eta bere aldeko adjudikazioa ebatzi zuen 2019ko abenduaren 19ko osoko bilkuran, 1.008.265 eurotan (BEZ kanpo).

Promotorak, baina, erabaki horren aurkako helegitea tartejarri zuen, eta Donostiako Administrazioaren Auzialdiatarako Epaitegiak 2020ko maiatzean emandako epaiak bailogabetu egin zuen derrigorrezko salmentaren prozesua, aurretiaz egin beharreko entzunaldia behar bezala egin ez zelako.

Horrenbestez, salmenta gauzatzeko eratu zen Kontratazio Mahaiaren proposamena aintzat hartuz, Kurtzekuako 8.2 partzelaren derrigorrezko salmentaren lizitazioa bertan behera uztea erabaki zuen udalbatzak 2020ko uztailaren 23ko osoko bilkuran.

OBRARI EKITEKO PREST

Epaitegiaren erabakiaren aurrean, *Promociones Kurtzekua* elkarteak jakinarazi digu azken lau urteetan lau aldiz eskatu duela obra hasteko lizentzia (lehen 2016ko abenduan, bigarrena 2019ko martxoan —obrari ekiteko erosleak zituela adieraziz—, hirugarrena 2019ko uztailan eta azkena 2020ko maiatzean —fatxadak eta estalkia ixteko bazkideek egindako diru-ekarpenen agiriekin batera—), baina ez duela erantzunik jaso udalaren aldetik.

Udalak gogorarazi du, 2010ean eman ziola aipatutako partzelan 12 etxebizitza eraikitze baimena *Promociones Kurtzekua* elkarteari, lanak 18 hilabeteko epean burutzeko



baldintzapean, baina denbora luzez obra geldu egon zela ikusita, eta eraikinaren egiturako fatxadak ixteko udalak egindako errekerimenduei kasurik egiten ez zela ikusirik, lizentziaren iraungipena deklaratu zuela 2015eko irailean.

Udalak 2016ko azaroan eman zion hasiera derrigorrezko salmenta prozesuari, eta promotoraren esanetan horrek geldiarazi egin du promozioa azken lau urteetan, 2016ko abenduaz geroztik obra baimena eskatuta duen arren. Honenbestez, obra baimena lehenbailehen lortzea espero duela adierazi digu *Promociones Kurtzekua* elkarteak, eraikitze lanei ekiteko.

Urriaren 6an hasiko dira Olakuako 2. areako urbanizazio berritzeko lanak

Irailaren erdialdean hastekoak ziren, baina, azkenean urriaren 6an hasiko dira Olakuako 2-A, 2-B, 3-A eta 3-B atarrien inguruko urbanizazioa berritzeko lanak. Aipatutako etxe-blokeen inguruan dauden oinezkoen ibilbideak eta zebra-bideak berrituko dituzte, irisgarritasun arauetara egokitzeko, eta plataforma bakarra egokituko da kale osoan. Ugarte eraikuntza enpresak egingo ditu lanak 139.909 eurotan (+BEZ), eta hiru hilabeteko epean amaitzea aurreikusten da

GAZTELEKUKO SOTOA berriro martxan

Gaztelekuko sotoa berriro zabalduko du udalak, gaur egungo egoerak eskatzen duen osasun eta segurtasun neurrietara egokituta.

Urriaren 13an irekiko da zerbitzua, eta asteartetik igandera egongo da zabalik (17:00-20:00).

TXANDA BIDEZKO FUNTZIONAMENDUA

- Aurrez eskatu beharreko txanda sistema bidez funtzionatuko da, eta 45 minutuko hiru txanda egongo dira (tartean desinfektatze lanak egingo dira):

- 17:00/17:45
- 18:00/18:45
- 19:00/19:45

- Txanda bakoitzean gehienez 10 pertsona sartuko dira, eta gutxienez 2 arduradun (adin nagusikoak) egon beharko dira.

- Erabilitako espazioen garbitasunaren ardura eskatzaileena izango da. Komuna garbitzeko eta desinfektatzeko ardura Gaztelekuarena izango da.

- Txandak Gaztelekuan aurrez aurre, edo 653 59 45 16 telefonoan eskatu ahaliko dira, gaztelekuko ordutegian (ahal bada Whatsappez, eta bestela telefonoz).

- Txandak gehienez 72 ordu lehenago eskatu ahaliko dira, eta hiru egunetik behin txanda bakarra hartu ahaliko da.

- Trazabilitadeak errazteko txandak hartzerakoan parte-hartzaile guztien izen-abizenak eman beharko dira.

- Birusaren zabalkundea ekiditeko Sotoko guneren bat itxi egin da, eta altzari batzuk eta jolasak erretiratu dira.



Udalak lankidetzaz hitzarmena sinatu du 'OinHerri' Herri Hezitzaileen Sarearekin

Haurren hezkuntza eta aisia beste modu batera egin zitekeela amesten zuten hainbat eragilek (*Hik Hasi, Urtxintxa, Irrien Lagunak, Aisiola, Txatxilipurdi, Topagunea...*) sortutako ekimena da *OinHerri*. Haurren parte hartzea eta erabakitze ahalmena, aisia hezitzaile eta euskalduna, aniztasuna, parekidetasuna, ingurumenarekiko errespetua, komunitate sarea eta auzolana dira, besteak beste, *OinHerri*-ren ereduaren oinarrietako batzuk, eta horiek hedatzeko lanean dihardute, Euskal Herri osoko herri hezitzaileen sarea sustatuz, eta Oñatiko herriarekin sinatutako hitzarmena egitasmo hori sendotzera dator.

Hitzarmenaren arabera, Oñatiko udalak 4.000 euroko diru ekarpena egingo dio eta, trukean, *OinHerri*-k eskaintzen duen aholkularitza tekniko-espezifikoa jasoko du eta herri hezitzaileen sarean dauden beste herrien esperientziak ezagutu eta partekatze aukera izango du. Helburua da, azken batean, udalak aurrera eramaten dituen proiektu guztietan (Hurretik, Herri Curriculum, Eskolara oinez, Eskola Kirola, Txipistin, Eskola Agenda, Oñatiko Inauteri Txikia...) *OinHerri*-ren irizpideak aplikatzea eta Oñati herri hezitzaileagoa bilakatzea.

DEIALDIA

Igeltsero ofizial lanpostua betetzeko deialdia egin du udalak

Hutsik dagoen igeltsero ofizial lanpostua oposizio-lehiaketa ireki bidez betetzeko deialdia egin du udalak. Deialdira aurkeztu ahal izateko, I Lanbide Heziketa titulua eskatzen da, eraikuntza ea obra zibilen arloan. Euskararen 2. hizkuntz eskakizun maila eta B motako gida baimena ere eskatzen da. Irailaren 24ko Estatuko Aldizkari ofizialean argitaratu zen iragarkia eta deialdia arautuko duten oinarriak. **Urriaren 26ra** arteko epea egongo da izena emateko.

IKASTAROA

'Abeltzaintza ekologikoa' ikastaroa egingo da Oñatin



HAZI fundazioak antolatuta, Gomiztegiko eskola eta Oñatiko udalaren laguntzarekin, abeltzaintza ekologikoan trebatzeko ikastaroa eskainiko da Oñatin, urritik aurrera. Ikastaroak 290 orduko iraupena izango du eta astelehenetik ostiralera (8:30-14:30) izango dira formazio saioak. Abeltzaintza arloan lan egiteko interesa izan dezaketen eta langabezia egoeran dauden pertsonen zuzenduta dago. Informazioa eta izen-ematea: www.hazi.eus / 678 630 247 / oaretxabaleta@hazi.eus

Asun Biainek ehun urte bete ditu



Asunción Biain Guridik ehun urte bete zituen irailaren 18an, eta halakoetan ohitura denez, Iزارo Elorza, alkateak, eta Susana Altuna, Ongizate batzordeko buruak, lore-sorta eta orogarrri bana oparitu zizkieten herritar guztien izenean.

Manuel eta Margaritaren alaba, Kale Zaharrean sortu zen Asun, eta bertan bizi da gaur egun ere, Begoña ahizparekin, eta zaintzaile baten (Cruz) laguntzarekin. Begoñaren alaba Jone eta Bittor senarra ere arduratzen dira ama-izebak zaintzeaz.

Ezkongabea da Asun, eta osasunez ondo dago oraindik, baina ez da etxetik irteten, pelukerixara edo medikuarengana ez bada. Egunero meza entzuteko ohitura du, irrati edo telebistaz, eta oso ondo zainduta dagoela adierazi digu, familiaren eta zaintzailearen konpainian.

Honenbestez, Asunekin batera zazpi dira gaur egun Oñatin 100 urte edo gehiago dituzten herritarrek. Denak emakumezkoak. Nagusienak 106 ditu.



'Izan Bidea' dinamika hiru zutabetan eta sei mendi tontor igoaz osatuko da Oñatin, urriaren 3an

Euskal preso eta iheslarien eskubideen eta elkarbizitzaren alde Sarek antolatutako 'Izan bidea' ekimenaren baitan, Euskal Herriko 650 tontorretara igotzeko erronka antolatu da urriaren 3rako. Oñatiri dagokionez, sei tontor igoko dira, hiru zutabetan banatuta. Horietako bat Santa Marinatik abiatu eta **Arranoaitzera** igoko da; bigarrena Arantzazutik irten eta bi adarretan banatuko da, **Aloñara** eta **Artzanburura** igotzeko; eta hirugarrena Araotzeko frontoitik abiatu eta **Andarto**, **Ahumategi** eta **Orkatzategiko** tontorretara igoko da. Goizeko 9:00etan da hitzordua eta 11:00ak aldera tontorretan talde-argazkiak ateratzea da asmoa.



Aitor Urzelai oñatiarra SPRIko zuzendari izendatu dute

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen eta Azpiegitura sailko erakundea da SPRI, eta euskal industria bultzatzea du helburu. Euskal enpresen ekintzailtza, na-



zioartekotzea, berrikuntza, zibersegurtasuna, digitalazioa, finantzaketa eta ikerketa eta garapena sustatzen ditu SPRI elkarteak. Aitor Urzelai ezagutzen du lehendik ere erakundea, 2016az geroztik bertan ari baita lanean, Ekintzailtzaren, Berrikuntzaren eta Informazioaren gizartearen arloko zuzendari lanetan. Aurrerantzean, baina, SPRIko zuzendari nagusia izango da, Jaurlaritzako gobernu kontseiluak hala erabakita.

Koronabirusa eta txertoei buruzko tailerra egingo da Oñatin

Osasunaren aldeko *Informa-tu* elkarteak antolatuta, koronabirusa eta bakuna edo txertoei buruzko tailerra egingo da Oñatin urriaren 4an. 'Coronavirus y vacunas. Lo que nos han explicado' da tailerraren izenburua, eta Xabier Uriarte medikuak gidatuko du. Jorratuko diren gaiak hauek: **1.** Koronabirusa, Gripe izurria eta bizi baldintzak; **2.** Txertoak: zer dira, nola funtzionatzen dute eta ze osagai dute; eta **3.** Txertoekiko erreakzio kaltegarriak. Hiru orduko iraupena izango du tailerrak (10:00-13:00). Prezioa: 30€. Izen-emateak: asociacioninformatu@gmail.com edo 658 719 089.



Ibailagun-2020



Erreken eta gordetzen duten biodibertsitatearen garrantzia ezagutzera emateko jardunaldiak, Natur Eskolaren eskutik

Zortzigarren urtez Ibailagun programa antolatu du Natur Eskolak, udalaren babesarekin. Gure erreken eta gordetzen duten biodibertsitatearen garrantzia ezagutzera ematea eta hauen babesarekiko sentsibilizazioa herritarren artean piztea da jardunaldien helburua. Honetarako, hainbat ekitaldi prestatu dituzte (ikus egitaraua) eta herritar guztiok gaude gonbidatuta hauetan parte hartzera. Denon gustukoak izango direlakoan, disfruta dezagun gure erreka eta ibai biziekin!



Urriaren 10ean ibilaldia egingo da, Iturrigorri abiatu eta Arantzazuko erreka jarraituz, Gesaltzako lisuneraino

Egitaraua

→ URRIAK 6, ASTEARTEA

Kultur etxeko zine aretoan (19:00), Doan.

DOKUMENTALA: 'Durienses; los endemismos del Duero'



Urbion mendiaeren hegoaldean 2.100 metroko altueran sortu eta Portugalgo Oportoko estuarioan itsasoratzen den ia 900 Km-ko Duero ibaiak gordetzen duen biodibertsitate berezi eta harrigarriaren inguruko dokumentala.

→ URRIAREN 5etik 11ra

ERAKUSKETA: 'Oñatiko errekek bizirik!'

Oñati errekek harriguneko pasealekuetan zehar errekarri buruzko informazio panelak.

→ URRIAK 10, LARUNBATA

Arantzazuko turismo bulegoaren aurrealdean (9:00)

IBILALDIA: 'Arantzazu erreka arroa eta Gesaltzako lisuna'

Iazko ibilbidean Iturrigorri basotik hasita Arantzazuko amildegi barrenerainoko tartea ezagutu genuen. Aurten, Arantzazu erreka jarraituz Gesaltzako lisuneraino iritsi eta bertan sartuko gara azalean zein lurpean milaka urtetan sortu dituen egiturak ezagutzeko: Izena emateko: 943716404 / 652771396 (whatsapp) / natureskola@yahoo.es

→ URRIAK 11, IGANDEA

Foruen enparantzan, 9:00

ERREKA GARBIKETA

Aurten, Oñatin lehenengoz egin ziren erreka garbiketen aitzindari izan zen Selma Huxley oroitzuz, errekek zaborrak eta landare inbaditzaileak jasoko ditugu. Errekan ibiltzeko oinetako egokiak (katiuskak edo oinetako zaharrak) eta eskularruak ekartzea gomendatzen da. Gerturatzeko den jende kopuruaren arabera, gehienez 10 pertsonako taldeak egingo dira bakoitzak erreka tarte jakin bat garbitzeko.

OHARRA: Ekintza guztietan maskara derrigorrezkoa izango da.

Urte askotan zuekin

© 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Euskara praktikatzeko aukerarik onena BERBALAGUNA

Berbalagun taldeetan izena emateko epea urriaren 1etik 15era, udal euskaltegian

Jende asko dago euskara ikasten dabilena, baina, eskola-orduetatik kanpo, euskaraz berba egiteko orduan aukerarik ez daukana arrazoi askorengatik: inguruan jende euskaldunik ez duelako, ausartzen ez delako..., eta beldurra galtzeko bultzakada bat behar duena.

Beste batzuek, berriz, euskaldun zaharrak izan arren, zailtasunak dituzte euskaraz egiteko; izan ere, euskarari bizkar emanda, luzaroan gaztelaniaz bizi izateagatik euskara herdoildu zaie. Bada, horientzat guztientzat eta, oro har, euskarazko mintzapraktika egin gura duten herritar guztiei zuzenduta dago **BERBALAGUNA** ekimena. Euskaraz berba egiteko zailtasunak gainditu eta konfiantza hartzen laguntzeko bitarteko bikaina dugu egitasmo hori.

Funtzionamendua oso sinplea da: euskaraz berba egiteko ohitura duten herritarrek eta mintzapraktika egin gura dutenak elkartzen dira euskaraz egiteko. Astean behin, ordubetez gutxi gorabehera, hiruzpalau laguneko talde txikietan, kafetegian, pa-

sean, parkean Taldekideen artean adosten dute zenbatero eta non elkartu. Udal Euskaltegiak koordinatzen du, eta dohainik da.

BALORAZIO POSITIBOA

Zazpi urteko ibilbidea egin du, jada, Berbalaguna proiektuak eta partaideen balorazioa positiboa da, orokorrean. "Nik hiru urte daramat berbalagun taldeetan eta oso gustura nago" adierazi digu Mari Garciak. "Konfiantza hartzeko balio izan dit. Lehen berehala gaztelaniara pasatzen nintzen, beldurratik, eta orain, aldiz, askoz ere lasaiago egoten naiz, gero eta leku gehiagotan eta jende gehiagorekin ausartzen naiz euskaraz berba egiten. Niretako poztasun handikoa da kafe bat hartzen dudana bitartean euskaraz berbetan jardutea eguneroko gauzen gainean. Gainera, paseoak egiten ditugunez, herria hobeto ezagutzeko aukera eman dit".

Euskaltegian modu formalean ikasitakoa praktikan jartzeko oso lagungarria da Berbalaguna, Mariren ustez. Iritzi berekoa da Isa-



Berbalagun talde bat (Artxiboko irudia)

Euskaraz berba egiteko zailtasunak gainditu eta konfiantza hartzen laguntzeko bitarteko bikaina da Berbalaguna ekimena. Astean ordubete baino ez da behar eta dohainik da.



Berbalagun talde bat (Artxiboko irudia)

MARI GARCIA / Berbalaguna

» Niretzat poztasun handikoa da kafe bat hartzen dudana bitartean euskaraz berbetan jardutea eguneroko gauzen gainean



ISABEL REBOLLO / Berbalaguna

» Berbalagunari esker euskara bizirik mantentzen dut. Azken batean lagun talde bat gara, eta lagun giro horretan lasaiago zaude euskaraz berba egiteko



**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak

GAKO
Garbitasunaren usaina

653 70 45 47
Oñati

COINBROKER
OÑATI
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9 • 20560 Oñati

943 089 006 | oinati@coinbroker.eus
www.coinbroker.eus

bel Rebollo: "Inguruan ez daukat euskaraz berba egiteko inor askorik, eta Berbalagunari esker euskara nire barruan bizirik mantentzen dut. Azken batean lagun talde bat gara berbalagunak, eta lagun arteko giro horretan lasaia gozatu euskaraz berba egiteko. Gainera, saio horien bidez lagun berriak egiten dira eta, horrela, beldurra eta lotsa galdu ez ezik, aurrerantzean norekin jardun ere topatzen duzu"

Urtero hiruzpalau berbalagun talde osatzen dira Oñatin, baina askoz jende gehiago dago herrian euskarazko mintzapraktika egiteko beharra daukana eta, horregatik, deialdi berezia egitea erabaki du Udal Euskaltegiak proiektu hau bultzatzeko eta sendotzeko.

Gogoratu berbalagun izatea doakoa dela; astean ordubete inguru eskaintzeko gogoia baino ez da behar, euskaraz berba eginez ondo pasatzeko. Beraz, hartzaile edo laguntzaile moduan parte hartu gura baduzu (biak beharrezkoak dira eta), deitu edo idatzi Udal Euskaltegira: **943-782496 / euskaltegia@onati.eus**. Izena emateko epea: **urriaren 1etik 15era**. Esan beharrik ez dago ongi etorriak izango direla aurtengo Euskaraldiko ariguneetan ibiliko diren **belarriprest** eta **ahobizi** guztiak.

IZAN BERBALAGUN!



IZENA EMATEKO EPEA urriaren 8an amaitzen da www.onati.eus web orrian

AISIALDIKO BEGIRALE TITULUA ateratzeko aukera aurten ere Oñatin

Haur eta gazteen aisialdiko begirale titulua Oñatin bertan eta euskaraz eskuratzeko aukera egongo da aurten ere, Udaleko Euskara-Hezkuntza sailaren eta Urtxintxa Aisialdi Eskolaren eskutik. Eusko Jaurlaritzak homologatutako titulu ofiziala da.

150 ordu teoriko eta 160 praktiko izango ditu ikastaroak. Praktika orduak egitasmo konkreturen batean egin beharko dira 2022ko iraila baino lehen.

Saio teorikoak goizez (9:00-15:00) izango dira, honako data hauetan: urriak 17, 24; azaroak 7, 14, 21, 28; abenduak 12, 19, 30; urtarrilak 4, 5, 9, 16, 23; otsailak 6, 20, 27; martxoak 6, 13; apirilak 17, 24-25 (asteburua aterpetxean); eta maiatzak 8, 15 eta 22. (Gehienez 24 ordu galdu ahal izango dira titulua eskuratzeko).

BALDINTZAK ETA PREZIOA

Atal teorikoa burutzen denerako 18 urte beteta edukitzea eta DBHko titulua izatea eskatzen da. Prezioa: 500€. Udalak matrikularen %75 ordainduko die ikasle eta langabetuei, eta gainerakoei %50 (betiere Oñatin erroldatuta badaude eta eskolen aprobetxamendu ona egiaztatu ostean).

Oñatiko udaleku irekietan begirale lanetan aritzeko 4,5 puntuko balioa izango du ikastaro honek. Informazio gehiago: udaleko Hezkuntza sailean (Iñaki Akizu-943780411 / iakizu@onati.eus), Gaztelekuko informazio puntuan eta www.onati.eus.

Betirako gordeko dituzun momentuak

Natxo Santos
ARGAZKILARIA

Olakua 7
T. 688 641 036

f i

JAUNARTZEAK, URTEURRENAK, BAKARKAKO SESIOAK... ETA N.A.N. ARGAZKIAK Natxo Santos Argazkilaria



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlerraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

HERRITARRENDAKO OHARRA

Iñaki Olalde Altelai, Kultura Batzordeburua

Agur t' erdi, herrikide!

Martxoaren erdialdetik, Euskal Herrian behintzat, gaurdaino bizi dugun egoera oso berezia izaten ari da munduko herritar guztiontzat, Covid-19ak eraginda. Egoera berezi honek, pertsona moduan, uanean uneko balorazioak egitera eta erabakiak hartzea eraman gaitu maila ezberdinetan. Etxean, kalean, lantokian, eta, gure kasuan bereziki, udaletxean edota herrian.

Oñatiarroi dagokigunez, hilabete berezia izaten da iraila. San Migel jaien aitzakian, irailan biziki animatua egoten den herria da Oñati. Aurten, ordea, ez da San Migel jairik gure herrian. Bizi dugun egoeran, ezin ditugu egunok gura genukeen moduan ospatu, familiar, lagunekin, ingurukoekin... Egoerak muga asko jarri dizkigu, zintzoki bete behar ditugunak behingoz arazo honi aurre egin nahi badiogu.

Horregatik guztiagatik, aurtengo jaiekin ahaztu, eta, gomendatutako osasun neurriak hartuz, gaur-gaurkoz, egunerokoan, egin dezakegun bizitzaz gozatzera gonbidatzen zaituztegu Oñatiko Udaletik.

Kultura sailetik, ekainean eta uztailean egin genuen bezalaxe, irailan eta urrian ere eskaintza kulturala jarriko dugu herritarren eskura. Irailaren 25etik urriaren 11ra bitartean, Azoka Kultura Gunea irekiko dugu asteburutako egitarauarekin, diziplina ezberdinetako arteaz gozatzeko aukera izan dezagun -Oñatiko Udalaren web orrian aurki dezakezue informazio guztia-. Eta urriaren 11tik aurrera ere ez da eskaintzarik faltako, herriko hainbat eragile beraien egitaraua lantzen eta osatzen ari baitira.

Etorriko dira faltan botatzen ditugun ospakizunenez eta elkarretaratzeaz gozatzeko uneak, pazientzia izan dezagun. Bitartean, zaindu gaitezen.

IRAIL BUKAERA ETA URRI HASIERA OÑATIN: SAN MIGELAK ETA ERROSARIO JAIK

Amaia Erostarbe Letamendi.

Kultura-batzordekidea Oñatiko udalean.

EAJ-PNVren udal-taldearen izenean

2020ko irailaren 22ko Kultura-batzorde informatiboa egin da Oñatiko Kultur Etxean. Han, besteak beste, gogoeta hau aurkeztu du EAJ-PNVren udal-taldeak:

1. Emergentsia-egoeran gaude abuztuaren 19tik. Azken asteetako datuen eta berrien arabera, COVID-19 gaixotasunaren 2. aldia gaude Euskadin. Oñatin ere gora egin du nabarmen kasu positiboen kopuruak azken egunetan; erdiguneko bi taberna itxita egon dira/daude, zerbitzariak gaixotu direlako. Itxura guztien arabera, horixe izango da San Migel eta Errosario jai egun ofizialetako osasun-egoera ere.

2. Ingurumaria zail horretan, EAJren udal-taldetik argi esan nahi dugu babesten dugula kultura-ekitaldiak antolatzea; betiere osasun-eta segurtasun-protokoloak bermatuta, arriskuen ebaluazio-plana eginda eta aforoari erreparatuta. Izan ere, nahitaezkoa da kultura-jarduerak kontratatzea herri eta hirietan, kulturaren inguruan eraturako sektorea sustatzeko eta laguntzeko. Hala ere, EAJren udal-taldearen iritzian, egokiagoa da kultura-ikuskitzuna eta jai-jarduerak San Migel eta Errosario jai-egun ofizialetatik kanpo antolatzea 2020. urtean Oñatin, adibidez, udazkenean zehar, eta beste hainbat herritako ereduak jarraitzea: Arrasate, Bergara, Bilbo, Elgoibar, Errearteria, Hernani, Lekeitio, Mundaka...


"Aurten ez dira jaiak ospatuko ohiko eran, baina ez da kultur ekitaldirik faltako", izan da EH Bilduren udal-gobernuak helarazi duen mezua hainbat toki-komunikabideetan. Ildo horretatik, EAJren udal-taldeak ezinezon handia sortu digu jaietan ekintzak antolatu direla komunikatu duen mezuak. Ez ahal ditu herritarrak nahastuko, jaietako bizipozean murgilduko eta kalera irtetera (eta desfasera?) bultzatuko jai-egunetan! Horiek horrela, EAJ-

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es



Jairik ezean, kultura kalean

 Bizi dugun osasun larrialdiak eraginda, aurten ezingo dugu San Migel eta Errosario jaie-taz ohi moduan gozatu. Hala ere, udalak, kultur sortzaileei euren lanak erakusteko espazio ezber-dinak bermatu nahi izan dizkie. Plazako arkupetan ikusgai dagoen Ilunpetan Argazki Taldearen erakus-ketak, bertan behera gel-ditu diren ekintzak islatu nahi izan ditu aurten.



ILUNPETAN

PNVtik mezu argia eta bateratua proposatu diogu Oñatiko alkateari.

3. Bestalde, EAJren udal-taldeak azpimarratu nahi du lehentasuna duela herritarren osasuna bermatzeak COVID-19aren garai honetan; horretarako, behar-beharrezkoa da jende pilaketa saihestea. Horrexek izan beharko luke Oñatiko udalaren lehentasuna. Denok gaude kalean ibiltzeko, lagunekin elkartzeko, dantzatzeko... gogoz; alabaina, aintzat hartu behar ditugu herritarrek (haurrak, gazteak, nagusiak; ikasleak, irakasleak, langileak...), herriko merkataritza, ostalaritza, industria... eta ezin dugu iparra galdu eta norabidea aldatu. Zentzunak irabazi behar du, zuhurtziak eta elkartasunak eta arduraz jokatu behar dugu. Etorriko da 2021. urtea.

OHAR ETA DEIALDIAK

► Ganbara Abesbatzaren bazkide kanpaina

“Egin dezagun kultura elkarrekin’ lelopean, bazkide kanpaina abiarazi du aurten ere Ganbara Abesbatzak. Oñati eta Euskal Herriaren izen ona munduan zehar zabaltzen jarraitzeko eta erronka berriei ekiteko bazkide eta laguntzaileen beharra du Ganbarak. Bi aukera daude laguntzeko: ‘Ganbararen Laguna’ (15€) izatea, edo ‘Ganbarako bazkide’ (50€) izatea. ‘Lagun’ek Ganbara Abesbatzaren ‘Kultura elkarrekin’ aldizkari digitala, bazkideen kontzerturako sarrera bat, eta Gabonetako zozketarako partizipazioa jasoko dute. Gainera, %20ko beherapena izango dute ezkontza edo bestelako ekitaldi pribatueterako kontratazioetan. ‘Bazkide’ak, gainera, Ganbara Abesbatzaren webgunean agertuko dira, eta bazkideen kontzerturako bi sarrera jasoko dituzte. Informazioa: www.ganbara.org

► Lesbosera dirua bidaltzeko kanpaina

Moria-ko (Lesbos) kanpalekuan irailaren 9an izandako sutearen ondorioz sortu den egoera larriari aurre egiten laguntzeko, dirua biltzeko kanpaina jarri du abian Hotz-Oñati taldeak. Diru-ekarpenak egiteko bi bide ireki dituzte: Laboral Kutxan duen kontu korrontea (ES08 3035 0005 3300 50078053) edo Bizum bidez 620 132 821 zenbakian. Batutako diru guztia Lesbosen lanean diharduten GKEei bidaliko zaie.

► Herri kiroleko pentatloi txapelduna Oñatin

Larunbatean (urriak 3) Zubikoa kiroldegian (18:00) egingo den herri kirolen erakustaldian Xabier Zaldúa pentatloi txapeldun berriak parte hartuko du, beste hainbat aizkolari eta harri jasotzaileekin batera.

 **Catalana Occidente** **Mikel Egaña Urrutia**
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Etxebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrezkia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbide: Moxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com


PINTURAS
URBIA
MARGOAK
Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



Gure ekintzen berri emango duen atala...

TXALOKA UDAL LUDOTEKA 2020-2021 IKASTURTEA

Ez ohiko ikasturte berri honetan gu ere Martxan gaude. Irailean herriko txoko ezberdinetan egindako ekintza berezien ildo berdinekin Urriari ateak irekiko ditugu. Gogoz eta ilusioz haur eta familiekin erronka eta abentura berriari ekingo diegu.

Gizarte osoak egin behar izan duen moduan, gu ere egokitzapen eta planteamendu berriei gatz. Baina beti bezala, jolasa erdigunean kokatu eta elkarrekin balio ezberdinetan hezi eta hazteko prest.

Ludoteka zer den laburki esateko, euskaraz jolasteko eta lagunartean ondo pasatzeko proiektu bat da, lau paretez haratago doan zerbitzua.

Oñatiko 3-4tik 8-9ra bitarteko haur eta familientzat zuzenduta dagoena.

Ludotekan, jolas librearen bitartez, haurren autonomia eta parte-hartzea bultzatzen dugu. Beren interes pertsonaletik abiatuz, elkarlanean sortzen ditugun jolas, proiektu, baita irteerak eta beste mila kontu ere.

Jolastez gain, herriko kaleetan, natur guneean eta parkeetan ibiltzen gara eta ikasturte honetan inoiz baino gehiago kanpo espazioa guganatuko dugu.

Familiek ludotekako jardueretan eta antolaketan parte hartu ahal izango dute.

Ikasturte honetan modu ezberdinena antolatuko gara segurtasun eta higiene neurriak errespetatu ahal izateko, horretarako egokitutako protokoloak garatu ditugu.


Hasteko bazkietza sistema egongo da eta talde finkoekin funtzionatuko dugu txandak eginez.

Barne espazioa kokalekua eta babeslekuan izango den arren, esan bezala kanpo espazioak lehenetsiko ditugu ikasturte honetan.

Ludotekako funtzionamendu berria hobeto ezagutzeko eta **izen ematea egiteko Urriaren 7tik 14ra arte**, ate irekiak egingo dira. Ostean izen emandako familiekin taldeak egingo ditugu eta kopuruaren arabera Ludotekara etortzeko ordutegia azalduko da. Horretarako **Urriaren 15ean Guraso bilera** bat gauzatuko dugu bazkide guztiekin.

Urriaren 19an funtzionamendu berriarekin hasiko gara.

Ikasturtean zehar hiru hilean behin egingo dira ate irekiak pertsona orok proiektua ezagutu eta probatzeko aukera izateko. Hurbildu eta ezagutu gaitzazu!



SOTOA BERRIRO MARTXAN

Oñatiko Udalak egoera berri honetara egokituta Sotoa berriro jartzeko asmoa du. Sotoak urriaren 13an zabalduko ditu berriro ateak, asteartetik igandera egongo da zabalik, 17:00etatik 20:00ak arte. Covid-19aren ondorioz bizi dugun egoera berri honetara egokitzeko hainbat neurri hartu behar izan dira:

- Aurrez eskatu beharreko txanda sistema batekin funtzionatuko da, eta eguneko 45 minutuko hiru txanda egongo dira, ondoren 15 minutu desinfektatzeko egongo da:
 - o 17:00/17:45
 - o 18:00/18:45
 - o 19:00/19:45
- Txanda bakoitzean gehienez 10 pertsona sartuko dira, eta gutxienez 2 arduradun adinez nagusikoak egon beharko dira.
- Erabilitako espazioen garbitasunaren ardura eskatzaileena izango da. Bakoitzean komuna garbitzeko eta desinfektatzeko ardura Gaztelekuarena izango da.
- Txandak Gaztelekuan aurrez aurre, edo 653 59 45 16 telefonoan eskatu ahalko dira, gaztelekuko ordutegian (ahal bada Whatsappez, eta bestela telefonoz).
- Txandaz gehienez 72 ordu lehenago eskatu ahalko dira, eta hiru egunetik behin txanda bakarria hartu ahalko da.
- Trazabilitadeak errazteko txandak hartzerakoan parte-hartzaile guztien izen abizenak eman beharko dira.
- Birusaren zabalkundea ekiditeko Sotoko guneren bat itxi egin da, eta altzari batzuk eta jolasak erretiratu dira.

Iruña-Veleia auzia, zientzia eta epaia

Juan Martin Elexpuru, Antonio Rodríguez Colmenero eta Eduard Harris, Iruña-Veleiako grafitoen benetakotasunaren aldeko txostenak sinatu dituzten hamalau adituen izenean

Iruña-Veleiako aztarnategi arkeologikoan egindako aurkikuntzei buruz izandako epaiketa eta oraintsu emandako epaia dela eta, gertaeren errealitatea larriki desitxuratzen duten albisteak argitaratu dira komunikabideetan. Mugaz gaindi ere iritsi da errealitatearen desitxuratzeko hau, zabalkunde handiko bi egunkari britaniarrek, geologo batek “afera guztia adar jotze hutsal bat besterik ez izana” onartu eta bere burua errudun aitortu duela argitaratu dute albiste faltsu batean. Kezkaz ikusten dugu nola zenbait hedabidek ez duten betetzen, dagokien legez, gizarteari egia gainean oinarritutako informazioa eskaintzearen betebeharra.

Epaia dagokionean, azpimarratu egin behar dira, auzipetu nagusiaren aurka, hau da, indusketen zuzendari ohi Eliseo Gilen kontra frogarik ez izatea aitortzen duela, zigorra bere osotasunean zantzu soiletan oinarritua izan delarik, eta baita, Gilek zigorraren aurka helegitea aurkeztu duenez, kasu judizialak konpontzeke jarraitzen duela.

Epaitegi inguruko gertaera hauetaz gain, Iruña-Veleia aferak badu gizartearen gehiengoak ezagutzen ez duen alderdi bat, zientziari dagokiona justuki. Izan ere, hedabide batzuetan “faltsutze baldar” gisan aurkeztu denean, egiaz, eztabaida bizi-bizirik dago aurkikuntzen egiazkotasuna argitu ezin izan duten eta kontrako iritziak sostengatzen dituzten alor desberdinetako adituen artean. Eta eztabaida hau izan badela epaian bertan agerian gelditu da, bertan baieztatzen baita badirela “batzuen eta besteen arteko iritzi kontrajarriak, zeinak arkeologia, hizkuntzalaritza, epigrafia, eta abarretako zientzia esparruetatik baloratu beharko duten” eta “piezak aztertu ahal izan dituzten adituen artean eztabaida badela”. Epaitegiak eztabaida zientifikoa izan badela onartzeak, ezereztu egiten du Arabako Foru Aldundiaren (AFA) Kultura Sailak 2008ko azaroan hedaturiko – eta egia ezizuzen eginez zenbait komunikabidek oraindik haiztzen duten – faltsutasunaren aldeko “erabateko adostasun zientifikoaren” mitoia. Errealitatea berriz bestelakoa da, alor desberdinetako (arkeologia, epigrafia, hizkuntzalaritza, historia, egiptologia) hainbat adituk, txosten, artikulu zientifiko, liburu eta biltzarretan egindako aurkezpenen bidez publikoki azaldu baitituzte Iruña-Veleian egindako aurkikuntzen egiazkotasunari buruzko euren iritzi eta argudioak. Eztabaida honen gainean epai judizialak ez du inolako eraginik. Lehenik, epaitegiatiko afera oraindik argitzeke dagoelako, eta bigarrenik, zientziaren esparruko gaiak aldizkari, biltzar zientifiko eta antzerako zientzia foroetan argitu behar dutelako, eta ez, inola ere, justizia-azitegiatan. Izan ere, epaia honi buruz ari da,

espresuki dioenean, “arkeologia, hizkuntzalaritza, epigrafia, eta abarretako zientziaren esparruei dagokie” dauden iritzi kontrajarriei buruz balorazioak egitea.

Iruña-Veleiako aztarnategian induskatutako 36 piezetan (400 baino gehiago topatu ziren) Espainiako Kultur Ondarearen Institutuak (Instituto del Patrimonio Cultural de España [IPCE]) egindako analisiak, grafitoek oraintsu eginak izatearen zantzuak zituztela ondorioztatzen eraman zuten (ondorio horiek bermatzeko beren adina ziurtasun osoz ezagutzen den – antzina egindako, nahiz oraintsuko – kontrolerako grafitoen gaineko inolako analisisaren emaitzarik ez da aurkeztu, eta honek ateratako ondorioen egokitasuna zalantza pean uzten du) eta ondorio horiek ditu oinarri epaiak. Ez da gure asmoa, inondik inora ere, aurreko hau ezkatzea. Analisi hauen ondorioak izan dira aztarnategiko zuzendari ohi, grafitoak “bere kabuz ala hirugarrenen baten bidez” egin izanagatik zigortzen eraman dutenak. Ezin esan gabe utzi halere, akusazioaren eta defentsaren perituek, eta baita IPCEek berak ere, epaitegiaren esku utzitako analisi fisikoei buruzko beste hiru txostenetan ez dela grafitoen faltsutasunik ondorioztatu. Beraz, agerikoa da, azterketa fisikoei dagokienean ere, adituen txosten eta testigantzetan badirela desadostasunak.

Iruña-Veleian aurkitutako piezen adinari buruzko desadostasunik ez dago ordea, nazioartean izen handia duen bi arkeologok balioztatu dituzten datazio stratigrafiko bidez azaldu da beren erromatar garaiko jatorria, eta hau inork ere ez du ezbaian jarri, epaian bertan onartu delarik. Grafitoen adinaren eta datazio stratigrafiko hauen arteko bateraezintasuna adierazten duten azterketa linguistiko, epigrafiko eta fisikoen argudioak zalantza jarri dituzte grafitoak erromatar garaiarekin bateragarri direla uste duten hainbat adituk. Gu, eztabaida honi irtenbidea emateko bide bakarra zientzia eremutik etorriko denaren ustekoak gara. Uste hau dela eta, AFari, piezen zaintzaren ardura duen horri, eskatzen diogu: auzibidean ez dauden aleak (auzibidea faltsutzat jotako 36 piezetara mugatzen baita) utz diezazkion zientzia komunitateari eskuragai, berauek dituzten grafitoen antzinasuna ezagutzeko behar diren azterketak egin, ondorioak atera eta publikatu daitezkeen; Arabako Arkeologia Museoan garbitu gabe gordeta dauden piezak, prozesua bere osotasunean bideo bidez jasotzen den bitartean garbitzeko eskakizuna ere luzatzen diogu; eta baita, kontrolerako indusketak egitea “ezohiko” grafitoak azaldu zireneko guneen ondoan arkeologia talde independente baten eskutik, modu honetan, antzerako aurkikuntzarik gertatzen den egiaztatzeko.

Iruña-Veleiako grafitoek, erromatar garaikoak balira (inork ez du garai horretakoak ez direnaren behin betiko frogarik ezagutarazi), aitzin-euskararen, latinak erromantzeetara izandako garapenaren, eta hasierako kristautasunaren ezagutza garrantzitsua eskainiko lukete, beraz berauen antzinasunari dagokion eztabaida argitzeak, hala nola, haien ikerketa zientifikoa egiteak eta publikatzeak geure ondare historiko eta kulturalarentzako berealdiko garrantzia izan lezake.

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

AUZOKO

Erdal hiztunak euskarara hurbiltzeko ekimena martxan jarriko da aurten ere

► Covid-a dela eta, aurten talde ezberdinak antolatuko dituzte Auzokon, osasun neurriak bermatu ahal izateko. Beraz, parte hartzeko asmoa izanez gero, jarri harremanetan koordinatzailearekin (Carol): onati.azoko@topagunea.eus helbidean edo 661 743 501 zenbakian. Urriaren 13an hasiko da ikasturtea. Animatu!

► Sdenka Huaranca Vaca Cortés / AUZOKIDEA

"Euskarara hurbiltzeko ez ezik, etorkinak herrian integratzeko ere oso lagungarria da Auzoko"



Boliviarra sortzez, sei urte daramatza Sdenkak Oñatin, eta hirugarren urtea egingo du Auzokon. Programa oso interesgarria iruditzen zaio, ez bakarrik euskara ikasteko, baita etorkinen integrazioaren alde egiten duen lanagatik ere.

Nola hasi zinen Auzokon?

Egoitzetan eta pertsona nagusien zaintzan egiten dut lan, eta uste dut beharrezkoa dela euskararen oinarrizko ezagutza bat behintzat edukitzea, pertsona horiek beraien ama hizkuntzan 'lagundu' edo 'min daukat'

esaten dutenean, ulertu ahal izateko.

Beraz, euskara ikasteko dauden aukera ezberdinez galdezka hasi nintzen, eta Auzoko interesgarria iruditu zitzaidan euskarara hurbiltzeko eta oinarrizko ezagutza lortzeko.

Zer da zuretzat Auzoko?

Euskarara hurbiltzeko gune egokia iruditzen zait. Modu ludikoan ikasten dugu euskara. Gramatika alde batera utzi eta jolasaren bidez, kantuen bidez... ikasten ditugu hitzak, zenbakiak, esamoldeak... Oinarrizko ezagutza lortzea da helburua; euskara ulertzea eta komunikatzen ikastea.

Baina formaziorako gunea izateaz gain, integrazioaren alde egiten duen lana ere azpimarratuko nuke. Auzokon herrialde eta kultura ezberdinetako pertsonak elkartzen gara, elkar ezagutzen dugu,

elkarrengandik ikasten dugu, gure kultura balioan jartzen da, etorkinon ikuspuntua ere aintzat hartzen da, eta horrek guztiorrek aberastu egiten du.

Auzokok herria hobeto ezagutzeko aukera eman digu, txangoak egiteko aukera izan dugu, herriko jaietan eta herri mailan antolatzen diren ekitaldi eta ekimenetan parte hartzeko aukera eskaini digu... Integrazioaren alde lan polita egiten duela uste dut. Nik bi urte daramat bertan eta balorazioa oso positiboa da.

Nor animatuko zenuke Auzokon parte hartzera?

Edozein herritar, bai kanpotik etorritakoak, eta baita oñatiarrak ere, gune interesgarria delako pertsonak ezagutzeko, kulturak partekatze... Euskara ardatz hartuta, jatorri eta kultura ezberdinetako pertsonak elkartzen gara, eta aniztasun horrek aberasten du.

munduko
bizikleta fabrikatzaile handiena den
GIANT markako
bizikleta elektrikoak
969 eurotik aurrera

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK
oñabike.com Otadui 25, Oñati
Tel.: 943 78 05 65

► Lander Elorza Hernández / AUZOTARRA

"Beharrezkoa da oñatiarrek ere parte hartzea Auzokon, bertako sentitzen eta euskara ikasten laguntzeko etorkinei"

Auzotar gisa parte hartzen du Landerrek Auzokon, Oñatira datozen kanpotarrei bertako sentiarazten eta euskararako bidea egiten laguntzen.

Zure hirugarren ikasturtea izango da Auzokon. Nola hasi zinen?

Mexikotik, Erasmusetik etorri berritan, Auzokoko dinamizatzaileak proposatu zidan, eta bi aldiz pentsatu barik eman nuen izena, esperientzia berri bat probatzeko. Ez naiz damutzen.

Auzotar gisa parte hartzen duzu zuk. Zein izaten da zure egitekoa?

Dinamizatzailea (Carol) arduratzen da ekintzak antolatzetik. Gu laguntzaileak gara. Gure lana da, azken batean, Oñatira datozen kanpotarrek bertako sentitzea, integrazten laguntzea eta euskararako bidea egiten laguntzea. Horretarako beharrezkoa da Oñatiko jendeak ere parte hartzea Auzokon, etorkinen

harreman-sarea zabaltzeko. Hala ikusten dut nik.

Zein izaten da dinamika?

Astean behin elkartzen gara Auzokok Bidebarrieta kaleko 16an duen lokalean, eta ekintza ezberdinak egiten ditugu (mahai-jokoak, kantak...) oinarritzko euskara ikasteko, modu ludikoan beti ere.

Hortik aparte, tarteka ekintza 'extraeskolarrak' antolatzen ditugu: afariak (herrialde ezberdinetako jakiak dastatzeko), poteoak, txangoak, herrian antolatzen diren kultur ekitaldietan parte hartzen dugu... Alegia, Auzoko ez dadila izan lokaleko ekintzetara mugatu. Garrantzitsua da herrira irtetea eta kanpotik etorritako jendeari herriko dinamikan integratzeko bidea erraztea.

Laguntzearen parte hartzen duzu Auzokon, baina jaso

ere egiten da, ezta?

Bai horixe!. Munduko txoko ezberdinetako (Guinea Conakry, Sahara, Ukraina, Latinoamerika...) jendearekin topo egiten duzu, beraien kultura ezagutzeko aukera duzu, eta hori oso aberasgarria da. Horixe da nik jasotzen dudana altxorra.

Nor animatuko zenuke?

Laguntzeko prest edo esperientzia berri bat bizi nahi duen edonor. Jende eta kultura ezberdinak ezagutzeko jakin mina duen oro. Oso giro polita sortzen da eta ez du lotura handirik eskatzen. Beraz, animo!



Zer da Auzoko, eta norentzat?

Oñatiko udalak eta Euskaltzaleen Topaguneak elkarlanean antolatzen duten programa da AUZOKO. Helburua da jatorri ezberdinetako herritarrak euskarara gerturatzea eta, bide batez, herrian integrazten laguntzea, beti ere pertsona horien hizkuntzak eta kultur aniztasuna aintzat hartuz eta balioan jarriz.

Horretarako, bi hanka edo osagai nagusi ditu **Auzokok**: alde batetik **AUZOKIDEAK** (euskarara hurbildu nahi duten herritarrak) eta bestetik **AUZOTARRAK** (euskal hiztunak). Astean behin elkartzen dira ordu eta erdiz, ekintza ludikoen bidez (mahai-jokoak, tailerrak, kantak, afari tematikoak...) elkarren arteko zubiak eraiki eta harreman sareak sortzeko euskara ardatz hartuta. ■



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6

T.: 943 781 648

onati@gualbiasesores.com

www.gualbiasesores.com

ESKUBALOIA BAJA UGARI GIZONEN LEHEN TALDEAN

ZIKLO BERRIA

Itxura berria izango du eskubaloi saileko gizonen lehen taldeak. Azken denboraldietan pisu handia izan duten hainbat jokalarik eskubaloia uzteko erabakia hartu baitute. Covid-19 pandemiaren eboluzioak kontrakorik esaten ez badu, urriaren 17-18an hasiko da denboraldi berria.

Aitor Billar, Andoni Bernal, Jon Irizar, Dani Martins eta Mikel Madinak eskubaloia utziko dute.

Andoni Bernal, Dani Martins, Jon Irizar, Aitor Billar eta Mikel Madina, azken hamarkadan eskubaloi talde nagusiaren bizkarrezurra osatu duten jokalarietako bostek kamisetak eskegitzea erabaki dute. Adina, lesioak, nekea, behar adinako motibazio falta, beste erronka batzuei ekiteko gogoa... arrazoiak ugari eta ezberdinak dira, baina gazteei lekua uzteko unea iritsi dela erabaki dute.

Beteranoenak, Bernalek, 20 urte eman ditu eskubaloiari; Irizarrek 13, eta besteek 15-17. Bizitzaren erdia baino gehiago, guztiek ere. Aloña Mendiko eskubaloi saila (gizonen lehen talde nagusirik gabe ere egon zen) garai zaila bizitzen ari zenean iritsi ziren senior mailara, duela hamar urte, eta behe-behetik (2. Territoriala) ekin behar izan zioten etapa berriari.

Harrobian egindako lanari esker, denbora gutxian talde polita osatu zuten: gaztea,

«Taldea izaera eta gure arteko giro ona izan da emaitzak lortzeko gakoak»

«Aloña Mendi bezalako klub bati dagokion tokian kontsolidatu dugu taldea»

ilusio askokorekin eta oso konprometitua. Eta horixe izan da, duda barik, beraien indarra. "Lagun kuadrilla bat izan gara, oso giro ona izan dugu beti, bai kantxan eta baita kanpoan ere, bakoitzak bere rola betetzen jakin du, eta horixe izan da emaitza onak lortzearen gako nagusia", bat datoz bostak.



BURGOSEKO FASEA

Hiru urteren buruan Euskal Ligara (2. Maila Nazionala) igotzea lortu zuten 2015ean, eta zerua ukitzear egon ziren bi urte beranduago, 2017an, 1. Maila Nazionalera igotzeko Burgosen jokatu zuten goizko fasean. Aurretik, Oñatin jokatu zuten Euskal Ligako fase gogoangarria irabazi zuten, erakustaldi bikaina emanaz, baina Burgosen bigarren postuarekin konformatu behar izan zuten.

Horixe da, beharbada, kirol mailan geratu zaien pena edo arantzatxo bakarra, baina, hala ere, kontent eta gogobeteta daude egindako ibilbidearekin. Bakarra, baina, hala ere, pozik eta gustura (gogobeteta) daude egindako ibilbidearekin. "Azken zazpi urteetan aurreneko bosten artean sailkatu gara, ia urtero igotzeko fasean bat jokatu dugu, eta, garrantzitsuena, Euskal Ligan kontsolidatu dugu taldea, Aloña Mendi bezalako klub bati, daukan

estrukturagatik, mugitzen duen jende kopuruagatik eta daukan afizioagatik, dagokion tokian".

ILUSIOA BERPIZTU

Izan ere, taldearen inguruan sortu den giroak ere aipamen berezia merezi du. Kemena, ilusioa eta konpromisoa transmititu duen talde bat izan da, eta horrek ikusmina eta ilusioa piztu du zaletuen artean. Ikustekoa izan da urte hauetan Zubikoa kiroldegiko harmailak goraino beteta ikustea. "Azkenean ohitu egiten zara, eta badirudi normala dela, baina oso leku gutxitan ikusten dira harmailak Oñatin bezala, eta horrek asko motibatzen ditu jokalariek".

IBILBIDE BIKAINAK

Bakarka ere azpimarratzeak dira agur esan duten jokalarien ibilbideak. Andoni Bernal bederatzi urtez aritu zen Arrate (Eibar) eta Arrasateko taldeetan, gehienak 1. Maila Nazionalen. Eibar-



> Gipuzkoako Federazioko presidenterako hautagai

Mikel Mantxola Idigoras oñatiarra Gipuzkoako Eskubaloi federazioko presidente izateko hautagaia da. Irailaren 25ean egitekoa zen zuzendaritza talde berria hautatzeko batzar orokorra, baina azken momentuan atzeratzea erabaki zuen federazioak, beste hautagaitzak aurkeztutako helegitea aintzat hartuz, deialdiaren berri ematerakoan berdintasun printzipioa urratu zela argudiatuta. Oraindik ez dute data berria zehaztu, baina ilusio handia duela adierazi du Mantxolak. Gipuzkoako klubuen artean batasuna lortzea izango da bere helburu nagusia.



tarren Asobal mailako taldearekin debuta egiteko aukera ere izan zuen eta Lehen Maila Nazionaleko golegile nagusietako bat izan zen (150 gol denboraldiko) Arrasaten ari zenean. Ohorezko mailan jokatze eskaintzaren bat ere jaso zuen 2013an.

Jon Irizarrek Errenteriako

Ereintza taldean jokatu zuen denboraldi batez, eta estatu mailako zilarrezko kategorian jokatze aukera izan zuen.

Aitor Billar ere nabarmendu behar da, Euskadiko jokalarionena izendatu baitzuten 2016an, eta Euskadiko 23 urte azpikoen selekzioarekin lagunarteko bi partidu joka-

tzeko aukera izan zuen. Horietako bat Oñatin, Zubikoan.

AGURRAREN GAZIA

Beste modu bateko agurra amestu zuten. Kantxan esan nahi zuten agur, jokatzeko, zaletu aurrean, baina Covidak galarazi zuen, iazko denboraldia bertan behera geratu baitzen, alarma egoerarekin batera.

«Kantxan esan nahi genuen agur, zaleen aurrean, baina Covidak galarazi du»

«Lasai goaz, berme guztiak dituen talde sendo bat ikusten dugulako atzetik»

Gogoan dute, jokatutako azken partidu ofiziala Arrasaten irabazi zutela, azken segundotan sartutako gol bati esker. Gidoi polita zen agurre-rako, zalantza barik, baina garai hartan ez zekiten hurrengo astean lehiaketa bertan behera geratuko zela eta ez zutela partidu ofizial gehiago jokatuko.

Penatxo horrekin, baina pozik eta lasai doaz, berme guztiak dituen talde sendo bat ikusten dutelako atzetik. "Gure belaunaldiko beterano batzuk gelditzen dira oraindik, eta taldearen pisua hartu behar duten gazteek dagoeneko 2-3 urte daramatzate gurekin jokatzeko, minutu askorekin. Talde izaera indartzea izango da gakoa berriz ere, baina entrenatzaile berriak ondo ezagutzen dituz jokalariek eta oso motibatuta dago gainera".

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiete urte hauetan inguruan izan dituzten entrenatzaile, laguntzaile, zaletu, direktibo eta senideei, emandako babesagatik eta ikusten ez den lan isila egiteagatik. ■




Etxean garaile

TXIRRINDULARITZA Sasoi betean jarraitzen dute gazte mailako Aloña Mendiko txirrindulariek. Danel Casaisek denboraldiko bigarren garai-pena lortu zuen irailaren 12an Oñatin eta taldeka ere, Mikel Deuna probako saria, etxean gelditu zen. Astebete beranduago, Alegin, Gipuzkoako erlojupeko txapelketan bigarren postua lortu zuen Casais. Bezperan, Unai Cuevak lan bikaina egin zuen Segurako Sari Nagusian, hirugarren postua eskuratu.

Liga hasiera

FUTBOLA Covid-19 pandemiak uste baino gehiago atzeratu du 2020-2021 denboraldi hasiera futboleant. Urriko lehen asteburuan hastekoa zen Ohorezko Erregional mailako liga, bi astez atzeratu dute. Eta azken orduko gorabeherarik ezean, urriaren 17-18ko asteburuan ekingo dio ikasturte berriari gizonezkoen futbol talde nagusiak.

Gogoratu beharra dago, iazko liga bukatu ez bazen ere, txapelketa eten zenean lehen postuan zegoenez, igoera lortu zuela Endika Ruizen taldeak. Entrenatzaileak baja bakarria izango du aurtengo denboraldian. Gaizka Irizar kapitainak izan ezik, gainontzean, iazko talde berbera izango baitu teknikari oñatiarrak. Momentuz, zalerik gabe hasiko dira lehiatzen.



Amatasunari buruzko filma egin du Maria Cruickshankek

» Bederatzi emakumeren barren-barreneko bizipenak jaso ditu, haurdunaldiaz, erditzeaz, erdiondoaz, edoskitzeaz eta hazkuntzaz



» *Amatasun prozesuan emakumeak dituen oinarritzko beharrei kasurik egiten ez dien gizarte batean bizi gara*

Aktore lanetan behin baino gehiagotan ikusi izan dugu Maria Cruickshank Moreno oñatiarra, baina oraingoan zuzendari rola hartu du, amatasunari buruzko *Bellas* erdimetra (42') filmatzeke.

Aktorea ez ezik, *doula* ere bada Maria, eta Iruñeko Arrotxapea auzoko *BioSphere* zentroan dihardu lanean (*espacioaman.com*), amatasun prozesuan dauden emakumeei laguntzen. "Gune lasai bat eskaintzen diegu, segurua eta adeitsua, aske senti daitezen beraien lotsak, beldurrak eta kezak adierazteko, eta ama edo aita izatearen esperientziaz %100 gozatu ahal izateko sortzen diren oztopo eta zailtasunak elkarrekin gainditzen laguntzeko asmoz".

Mariaren ustez, gaur egungo gizartean bizkarra ematen zaie amatasun prozesuan dauden emakumeek dituzten oinarritzko beharrei, eta horixe da, hain zuzen, *Bellas* pelikularen

helburua, alegia, prozesuaren protagonista diren emakumeei begietara begiratzea, entzutea eta sentitzea. "Nire lana dela eta, amatasun prozesuan dauden emakume askorekin dut harremana, eta iruditzen zait merezi duela emakume horien istorioak eta barren-barreneko bizipenak kontatzea, gizarteak entzun ditzan".

CASTING BARIK

Bederatzi emakumeren testi-



Aktorea izateaz gain, doula ere bada Maria. Amatasun prozesuan dauden emakumeei laguntzeko zentro bat dauka Iruñean. Doula formazioa eta edoskitzea edo haur-eramateari buruzko tailer eta ikastaroak ematen ditu

gantzak eta gogoetak jaso ditu *Bellas* filmean, haurdunaldia, erditzea, erdiondoa, edoskitzea eta hazkuntzaren inguruan. "Ez dugu *casting* edo aukeraketarik egin; nik proposamena luzatu nuen eta beraien borondatez euren bizipen pertsonalak kontatu dituzten bederatzi emakumeren istorioak jaso ditugu".

Pelikula oso dinamikoa eta intentsua da emaitza, zirrara eragiten duena eta inor epel uzten ez duena, dio Mariak. "Eztarrian korapiloa uzten duen horietakoa da, eta ikusi ostean kosta egiten da hitz egiten hastea".

Covid 19-ak eten egin zuen pelikularen promozioa, baina ikasturte berriarekin batera han-hemenka (udaletxeetan, elkarteetan...) aurkezteko asmoa du. "Emanaldiaren ondoren solasaldia egiten dugu, ikusitakoaren inguruko hausnarketa egiteko". Interesa izanez gero, info@espacioaman.com helbidean jar daiteke harremanetan.



'Go!azen 7.0'n ikusiko dugu Maria Cruickshank

Hiru ume txikiren ama da Maria, eta azkenaldian alde batera utzi izan ditu aktore lanak, baina bueltan da berriz ere, eta Euskal Telebistak laster estreinatuko duen **Go!azen** telesailaren denboraldi berria ikusiko dugun aurpegi berrietako bat izango da.

Uda osoa eman dute grabatzen, eta Mariak aurreratu digunez, *Kristina* izango da **Go!azen 7.0n**, Basakabiko udalekuko ingeles irakasle berria. Bere estreinaldia izango da ETBko telesail arrakastatsuan. Aurretik, zinean (*Negociador*, *Igelak*, *Villaviciosa de al lado*,...), telebistan (*Goenkale*, *Vis a vis*,...) eta antzerkian ere ikusi izan dugu Maria (*Eta zer*, *Kondesaren erretratua*...) bezalako lanetan.

SELMA HUXLEY JARDUNALDIAK

Selma Huxley Barkham-en omenezko jardunaldiak antolatu ditu Oñatiko Emakumeen Kontseiluak

Maiatzaren 3an zendu zen Selma Huxley Barkham ikerlari ingeles-kanadiarraren omenezko jardunaldiak antolatu ditu Oñatiko Emakumeen Kontseiluak, udaleko Berdintasun departamentua eta Gipuzkoako artxibo historikoarekin elkarlanean. Haren lana ezagutzera eman, eta aitortzarako tartea eskaini nahi zaio ekimen honen bidez.

BISITA GIDATUAK

Urriaren 29an, osteguna (19:00etan, euskaraz/gazteleraz) eta **urriaren 31n**, larunbata (11:30etan gazteleraz eta 12:30etan euskaraz), bisita gidatuak egingo dira Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan, 'Selma Huxleyren ikerketa lana artxiboan' izenburupean.

Bisitetan parte hartzeko, izena eman behar da **urriaren 27a** baino lehen, berdintasuna@onati.eus helbidera idatzita, edo 943780411 zenbakira deituta.



Selma Huxley ikerlaria 20 urtez bizi izan zen Oñatin

ZINEA ETA ARGAZKI ERAKUSKETA

Selma Huxley gogoratzeko ekitaldien baitan, bi zine emanaldi ere programatu dituzte. **Urriaren 25ean** 'Ipar haizearen erronka' marrazki bizidunetako filma ikusi ahal izango da haurrentzako zine emanaldian, eta **urriaren 29an** 'Nao San Juan' dokumentala emango dute Zine Klubaren tartean.

Bestalde, datorren urteko maiatzean, Selmaren heriotzaren urteurrenean, hura omentzeko ekitaldi instituzionalago bat antolatzeko asmoa ere badu kontseiluak. Besteak beste, argazki erakusketa bat antolatu nahi du eta, beraz, Selma Huxleyrekin lotura duen argazkiren bat duten herritarrei kontseiluarekin partekatzeke deia luzatu dute, emakontseilua@gmail.com helbidean edo udaleko Berdintasun sailarekin harremanetan jarrita.

Selma Huxleyk (London, 1927) harreman estua izan zuen Oñatirekin, hogei urtez bizi izan baitzen gure artean, Protokoloen Artxibo Historikoan ikerketa lana egiten zuen bitartean. XVI eta XVII. mendeetan Kanadako kostalde atlantikora (Ternua, Labrador...) bakailaoa eta balea harrapatzea joaten ziren euskal arrantzaleen historia sakon ikertu zuen. Oñatiko udalak omenaldia egin zion 2016an, eta 'Selma Huxley' izeneko ikerketa beka ere sortu zuen.



XVI. mendean Kanadan hondoratu zen San Juan baleontziari buruzko dokumentala emango dute urriaren 29an, zine klubean

JUANJE MARGOAK
T. 627 818 247

Zure etxebizitzaren hobetzeko prest
Amaia Igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA
-Baserrien eta eraikinen zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE)
-Ilogailu eta 0 kotara proiektuak -Fatxadak isolatzeko proiektuak
tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati

'EMAKUMEEN TXOKOA'

egokituko dute udal liburutegian

► Oñatiko Emakumeen Kontseiluaren proposamenari erantzunez sortuko dute txoko berria ► Urriaren 21ean inauguratuko dute

Urriaren 24an Liburutegien Nazioarteko Eguna ospatzen da, eta horren harira hainbat ekitaldi antolatatu dituzte udal liburutegian. Kalitatezko kultura eskaintzea da helburua, ingurune seguruan betiere, edukierak eta pertsonen arteko distantziak errespetatuz, eta erabiltzaile guztien segurtasun bermatuz.

EMAKUMEEN TXOKOA

Herriko Berdintasun Kontseiluaren proposamena aintzat hartuz, 'Emakumeen Txokoa' izeneko interesgune berria sortuko dute udal liburutegiko goiko solairuan. Gai zehatz baten inguruko baliabideekin (liburuak, CDak, DVDak...) osatutako txokoak dira interesguneak. Lehendik ere badaude halakoak udal liburutegian, hala nola: 'Oñatiko bilduma', 'Komikigunea' eta 'Irakurketa erraza' helduen liburutegian, eta 'Gurasoen txokoa', eta 'Komikigunea' haurren.

Emakumeen Txokoa emakumea izango da ardatz nagusia. Feminismoa, politika, zientzia, erlijioa, osasuna, psikologia, komikia... historian zehar eta arlo ezberdinetan emakumeek idatzitako edo emakumeak protagonista diren liburu eta bestelako dokumentuak aurkitu ahal izango dira bertan. Urriaren 21ean (19:00) aurkeztuko dute txoko berria, eta ekitaldia osatzeko, ikus-entzunezko bat (zehaztu gabe) egongo da zine aretoan.

ASISKO URMENTAREN 'AZTIHITZA'

Urriaren 23an Asisko Urmeneta ilustratzaileak sortutako 'Aztihitza' ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dugu kultur etxeko zine aretoan (19:00). Egilearen izen bereko liburuan oinarrituta dago antzezlanak, eta Agosti Xaho (1811 Atharratze -Zuberoa- / 1858 Baiona -Lapurdi-) idazle, hizkuntzalari eta politikariaren bizitza du oinarri. Euskal Herriko heroi nazional gisa definitzen du Asiskok, eta askok euskal nazionalismo ezkertiarren aitzindaritzat jotzen duten pentsalari zuberotarraren gogoetak eta proposamenak gogoraziko dizkigu ikuskizun honen bidez.



TERTULIXAN SAIOAK

Udal liburutegiko irakurketa taldeak ere hile honetan jarriko dira martxan. Gaztelerazko taldeak urriaren 13an izango du ikasturteko aurreneko saioa (zine aretoan, 18:30), Iván Repilak dinamizatuta, eta Galder Reguera (Bilbo, 1975) 'Libro de familia' liburuaren idazlea bertan dela. Saio irekia izango da.

Euskarazko tertulixan taldeak hilaren 27an izango du aurtengo aurreneko saioa Yurre Ugarteren gidaritzapean, 'Han ez banengo bezala' (Slavenka Drakulic) liburuaren inguruan. Psikologia gaien inguruko irakurle taldea hilaren 20an elkartuko da, Silvia Fondrak gidatuta, 'Los cuerpos partidos' (Alex Chico) liburuaz jarduteko.

IPUIN KONTAKETA

Ostegun kontalariak ekimena ere urrian hasiko da. Gogoratu, hileko azken ostegunetan haur eta gaztetxoei zuzendutako ipuin kontaketa saioak egoten direla Haur Liburutegian. Hile honetakoa 6-9 neska-mutikoei zuzenduta egongo da, eta Maite Franco izango da protagonista. Edukiera mugatua denez, ordu erdiko bi saio egingo dira, 18:00 eta 18:45 (10 lagun bakoitzean). Gonbidapenak urriaren 19tik aurrera, liburutegian.



Galder Reguera idazle bilbotarra izango da gaztelerazko Tertulixan saioko gonbidatua. Urriaren 13an, zine aretoan, 18:30etan). Saio irekia izango da, nahi duenarentzat.



Maite Franco izango da Osetegun Kontalariak saioko protagonista

LIBURUTEGIEN NAZIOARTEKO EGUNA Egitaraua

URRIAK 13

TERTULIXAN **Gazteleraz**
Tertulixan gaztelerazko taldearen saioa, Galder Reguera idazlea bertan dela. Kultur etxeko zine aretoan, 18:30 (*)

URRIAK 20

PSIKOLOGIA TALDEA
Psikologiako irakurle taldearen saioa. Zine aretoan, 18:30

URRIAK 21

'EMAKUMEEN TXOKOA' ETA ANTZERKIA
Emakume Txokoaren aurkezpena liburutegian eta ondoren ikus-entzunezkoa (zehaztu gabe). Zine aretoan, 19:00 (*)

URRIAK 23

'AZTIHITZA'
Asisko Urmenetak idatzi eta zuzendutako ikuskizuna. Zine aretoan, 19:00 (*)

URRIAK 27

TERTULIXAN **Euskaraz**
Euskarazko irakurle taldearen saioa. Zine aretoan, 18:30

URRIAK 29

OSTEGUN KONTALARIAK
6 uretik gorako gaztetxoei zuzendutako ipuin kontaketa, Maite Francoren eskutik. Orduerdiko bi saio (10 lagun saio bakoitzean). Gonbidapenak urriaren 19tik aurrera, liburutegian.

(*) Aforo mugatua izango denez, txartelak aurrez eskuratu beharko dira www.oñati.eus webgunean edo **Txokolateixan**

IDAZKETA LANTEGIA

» Idazten gozatzeko behar diren baliabideak lantzeko



Idazketa lantegia jarriko du mar-txan aurten ere udal liburute-giak. Idazteko grina edo zale-

tasuna duten herritarrei baliabideak eskaintzea da tailer honen helburua. Idazteko zale-tasuna dutenei behar duten motibazioa, bultzada, forma-zioa eta informazioa ematea, literatur testuak idazten has daitezten.

Joxemari Iturralde (Tolosa, 1951) idazlea izango da gidari eta dinamizatzailea. Ari-tua eta aditua da idazketa ikastaroak eskaintzen.

Lantegian landuko diren gaietako batzuk hauek dira:

-Trikimailuak literaturan murgiltzeko.

-Nola hasi idazten gure lehen testuak. Nondik hasi, nola, zer kontatuz.

- Teknikak, generoak, esti-loak, ikuspuntuak, pertso-naiak...

-Eszena bat deskribatu. Per-sonaia bat sortu. Elkarriketa bat eraiki.

-Liburu eta idazle ospetsuek emandako lezioak.

Izen-ematea eta informa-zio gehiago, udal liburute-gian (943716111 / liburute-gia@onati.eus / whatsapp-688732826), urriaren 15era arte. Animatu!

Oñatiko XII. Trikiti Jaialdia

Urriaren 17an izango da, Santa Ana antzokian. Edukiera mugak direla eta, bi emanaldi egingo dira, 16:30etan eta 19:00etan



PARTE HARTZAILEAK

- Agurtzane eta Ion Elustondo
- Jauregi, Gozategi eta Arrospide
- Xabi eta Kris Solano eta DZ
- Araitz, Josu eta Xabier Etxaniz eta Leire Larrañaga
- Saioa Lizarralde eta Maddalen Artzallus
- Tapia eta Leturia
- Laja eta Lutxurdixo

Sarrerak (12€) Txokolateixan eta www.onati.eus webgunean salgai



lazko jaialdiko irudia

Lizargarate Trikitzale Elkarteak antolatuta, urriaren 17an ospatuko da Oñatiko XII. Trikiti Jaialdia. Santa Ana antzokian izango da, eta COVID 19ak exijitzen dituen segurtasun eta osasun neurriak bermatu ahal izateko, bi jaialdi txanda egingo dira. Lehenengoa, 16:30etan izango da (ateak 16:15etan zabalduko dituzte) eta bigarrena 19:00etan (ateak 18:45etan irekiko dira).

Segurtasun neurriak errespetatze aldera, sarrerak Txokolateixan edo udalaren webgunean (www.onati.eus) eskuragarri egongo dira urriaren 1etik aurrera. Online erosiz gero, sarrerarekin QR kode bat jasoko dute eta mugikorrean erakutsita nahikoa izango da. Sarrerak, beste urtetan bezala 12€ko kostua izango du.

GUNE BANAKETA

Jaialdi segurua izan dadin, "gune banaketa" bat egingo dute antolatzaileek: Santa Ana antzokiko behe aldean eseri nahi dutenek, ezker aldean egin beharko dute ilara. Ezker aldean dagoen kristalezko atetik sartzean, sarrera erakutsi eta eskuak garbitzeko gel-a emango zaie eta ezkerreko atetik sartuko dira. Ateratzeko, eskuak garbitzeko eskatu eta ate berberak erabiliz irtengo dira.

Santa Anako goiko partean eseri nahi dutenek aldiz, eskuin aldean egin beharko dute ilara eta besteek bezala, sartzera eta irteterako garaian eskuak garbitzeko gel-a emango zaie eta ate berbera erabiliko dute sartu eta irteteko.

Bi saioen artean, Santa Ana antzokia desinfektatuko dute elkarteko kideek eta eskatzen dute, jende pilaketak saiheste aldera, kanpoaldean inor ez geratzea, denbora gutxira, hurrengo ekitaldirako jendea gerturatzen hasiko baita. Saio guztian zehar, beharrezkoa izango da maskarilaren erabilera.

ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LEHIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



DANTZA

URRIAK 3 / 20:00
'SUTAN DANTZAN'



Trikiti doinuak eta dantza uztartzen dituen ikuskizuna. Julen Alonso (trikitia eta ahotsa), Eneritz Aulestia (panderoa eta ahotsa), Joanes Ederra (baxua), Ander Ederra (gitarra), Iker Telleria (perkusioa) eta Oinkari Dantza Taldea. *Azoka Kultur Gunean.*

URRIAK 4 / 19:00
'FESTAMENTUA'

Estilo ezberdinetako dantzak eta



ummorea uztartzen dituen ikuskizuna, Tio Teronen Semeak taldearen eskutik. *Zubikoan.*

MUSIKA

URRIAK 4 / 9:00
TXITULARIAK

Udal txistulari taldearen goiz-eresia Herriko kaleetan.

URRIAK 4 / 13:00

MUSIKA BANDA

Oñatiko musika bandaren kontzertua. Lazarraga lorategian.

URRIAK 11 / 19:00

KONTZERTUA

Herriko musika talde baten (oraindik zehaztu barik) kontzertua. *Azoka Kultur Gunean.*

IKUSKIZUNAK

URRIAK 4 / 17:00

'TRAKAMATRAKA'



Musika eta birziklapena nahiz ingurumenarekiko errespetua bateratzen eta jorratzen dituen haurrentzako ikuskizuna. *Azoka Kultur Gunean.*

URRIAK 10 / 20:00

'URBASA'



Musika eta akrobaziak uztartzen dituen ikuskizuna, *Hutsun* txalaparta taldea eta Orzi Acosta akrobataren eskutik. *Azoka Kultur Gunean.*

HERRI KIROLAK

URRIAK 3 / 18:00

HERRI KIROL JAIALDIA

Herri kirolen erakustaldia. Xabier Zaldua pentatloia txapelduna, Ostolaza aita-alabak harria jasotzen, Joxe Manuel Bustinza 'Tubi' iparraldeko jokuetan, Ugaitz Mugarza, Iñaki Azurmendi, Maite Aristegi eta Irati Astondoa aizkoran. *Zubikoa kiroldegian.*



ARTISAUGINTZA

URRIAK 11 / 10:30

ARTISAU AZOKA

Herriko artisauen eskutik. *Foruen plazan.*

BERTSOLARITZA

URRIAK 11 / 12:30

BERTSO SAIOA

Azoka Kultur Gunean.

ANTZERKIA

URRIAK 25 / 19:30

'LOSERS'



40 urte betetzear, gizarteak ezartzen dituen baldintzetatik bakar bat bera ere ez betetzeagatik 'galtzaile' sentitzen den bikote baten gorabeherak. *Santa Anan.*



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezo Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA

Okindegia

Ostiral, asteburu eta jai egunetan baserrniko agia, egurrezko labea egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

HITZALDIAK

URRIAK 13 / 19:00

'YOGA: PLENITUD DE VIDA'



Oñatiko Sanatana Dharma Yoga Eskolak antolatuta, Manuel Paz Macazaga 'Madhava'ren hitzaldia. Sarrera doan izango da, baina aforoa mugatua egongo da. **Santa Ana aretoan.**



Hileko gomendioa

'Mediterranea zeharkatzen dutenak deshumanizatzea ezinbestekoa da haien heriotzen, kanporatzeen, ilegalizatutako bizitzaren gaineko ezaxola zabaltzeko. Ibrahim Balderen bizitzaren kronika da nobela hau.


ZINEA



Zine-kluba: Osteguna (20:00)
Nagusiak: Ostirala eta larunbata (22:30)
Igandea (19:30 eta 22:30)
Gaztetxoak: Larunbat eta Igandea (17:00)
Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

Urriak 2 - 5

NAGUSIAK:
Akelarre
GAZTETXOAK:
Bihurri



Urriak 9 - 12

ZINE KLUBA:
La familia que tú eliges
NAGUSIAK:
Uno para todos
GAZTETXOAK:
Scooby



Urriak 16 - 19

ZINE KLUBA:
Los informes sobre Sarah y Saleem
NAGUSIAK:
Rifkins festival
GAZTETXOAK:
El jardín secreto



Urriak 23 - 26

ZINE KLUBA:
Reina de Corazones
NAGUSIAK:
Ane
GAZTETXOAK:
Ipar haizearen erronka



Beratu Jaialdia azaroko lehen asteburuan

Martxoan egitekoa zen, baina Covid 19-aren ondorioz bertan behera geratu zen Beratu-2020 musika jaialdia **azaroren 4tik 8ra** egingo da. Hakima Flissi, Los Sara Fontan, Sua, Moi Moi orkestra magikoa eta Joseba Irazokiren musikaz gozatzeko aukera, besteak beste.



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ 943 78 21 16
Urriak 1, 9, 10, 11, 12, 19, 20, 28 eta 29.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22
Urriak 2, 13, 21, 22, 30 eta 31. Azaroak 1.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58
Urriak 6, 14, 15, 23, 24 eta 25.
Azaroak 2 eta 3.

IULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28
Urriak 3, 4, 5, 7, 8, 16, 17, 18, 26 eta 27. azaroak 4 eta 5.



MERKATU TXIKIA

IRAKASLEA BEHAR DA Klase partikularrak ematen dituen pertsona baten bila nabil. WhatsApp: 652 756 052.

ETXEBIZITZA ALOKAGA Etxebizitza alokatzen da Bidebarrietan; 95m², 3 logela, 2 bainu gela, sukalde ekipatua, egongela, trastelekua eta 16m²-ko terraza zabala. Deitu: 629 373 919.

ODOL ATERALDIA

URRIAK 2 / 17:00-19:00
Zubikoa pilotalekuan. Deituak diren odol emaleek soilik joan beharko dute

PLASTIKO BILKETA

URRIAK 27
Landa ingurunean sortutako plastikokoak bilketa puntuetara ateratzeko eguna



TABERNA • JATETXEA

Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





(*) Itten: arrastua, pista

>> INGO XONAU (2)

HIKAKO ESKOLAK

Jon: Zeozer entzun don honen gaiñian?

Amaia: Zeren gaiñian?

J: Ba, hemen ñabin irakurten lagun batek bialdu dosten whasapeko barrixa: hika egitten ikasteko ikastarua egongo dala.

A: Eztok izango? Etxakixat ezer!

J: Bai, eskolok zemendixan hasiko dittun, eta, gaiñera, emakumiandako bakarrik izango dirala xixon. Zergatik ete don hori?

A: Ba, izango dok emakuma gehixenak hika berba egitteko modua galduta dakogulako! Dakigunak banaka batzuk gaittuk.

J: Bai, halaxe don, baiña ez pentsau; guk, mutillen artian, hika sarrixago egitten baxonagu be, hanka-sartze galantak egitten ditzunagu!

A: Bai, halaxe dok, bai, baiña mutillena betik gorde dok hobeto, eta zuei, gaizki egin arren, dana barkaketan xatzue!

J: Bai, badakin, arrok dakogun pribilejiuak!

A: Bueno, bueno, kontu horrekin harrokerixa gutxiago, e!

J: Barkatu, neska, ezton hainbestesteraiñokua izan!

A: Izan badok, ezpadok, gai horrekin kontuz! Zer gura dok, ba, hi xaxaka hasi eta nik pakian izteia?

J: Bueno, itzi degigun kontua!

A: Eta jentia apuntauco dok, horregatio, eztok?

J: Asko be ezittun bihar, eurak onak eta fiñak izatia nahikua!

A: Jo, ba, nik Mirariri eta Joneri esango xostiat, hika egitten etxakixai ta. Animaitten badittuk, hirurok apuntauco gaittuk, gero alkarrekin hika egitteko be!

J: Hori, hori, izena emun, eta gero ikasittakua praktikan jarri. Baiña nik keja bat sartu bihar xonat: etxatan ondo pentsaitten eskolok emakumiandako bakarrik izatia!

A: Bueno, mutillendakua be etorriko dok, trankil egon! Itzi lehenengo emakumioi galdutakua irabazten eta gero zuek be eukiko dozue atiak alderik alden eregitta gura dozuen beste ikasteko!



>> AUZOUNAK ETA BASERRIXAK LOTU

Olabarrieta auzuak bi auzouna besterik ezittu bere barrutixan. Jakingo zeuke esaten zein auzounatan dagozen —ena deklinabide-kasuan amaittutako baserri honeik, Basaurin [Basabin] ala *Olazaranen?

a. Basauri

b. Olazaran

1. Fernanduen
2. Simonena
3. Juanpuena
4. Bernalena
5. Sankristobalena
6. Isabelena
7. Mantzena
8. Tiruena

*Olazaran: ezkutautako toponimo edo leku izena.

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



Aurten Artzain Txakur Txapelketarik bez

Gaitzak jota jarraiketan dogu. Udabarrizan pentsaitten geben San Migelak orduko egoeria oneraketan fango zala. Baiña udia pasau da, udazkena etorri xaku eta honek eztako, oraingoz behintzat, konponketako itxura haundirik. Honenbestez, Oñatiko **San Migel-Errosarixuak** be, beste leku gehixenetako fiestak letxe, **ez-jai** bihurtu dira. Burutu barik geldittuko diran ospakizunen artetik **Naziñoarteko Artzain Txakur Txapelketia** aukeratu dogu.

Tradiziño luzeko ikuskizuna da Oñatin artzain txakurrena: 1955ian sortu zan eta, harrezkero, 60 aldiz ospatu da gure herrixan; hasieran **Gastiasoroko zelaixan**, 1961erarte, eta sei urteko etenaldixaren ondoren, **Berezao auzuan**. Harrezkero, artzain txakurren arteko lehixa **Korriuena baserrixa eguen inguruko paraje zabalian** jokatu izan da, hutsik egin barik, San Migel eguneko aurreko domekan. Aurten, zoritxarrez, ezta urteroko juntadizorik izango, gure bizimodua hankaz gora jarri dauen izurrite zitalaren eragiñez eta kulpaz. Hurrengo udazkenera arte itxoin biharko dau 61. ekiñaldixak.

Urtiak fan urtiak etorri, makiña bat pertsonak, kuadrillak eta alkartek parte hartu dau txapelketa honen antolamenduan. **Reyes Korkostegi** eta bere talde laguntzaille saiatuari zor baldin baxaugu sorreria eta hasierako martxiaren merittua, ezin iñolaz be ahaztu proiektuari jarraipena emuten jardun dauen **boluntarixuen jeneraziño desbardiñak**. Zailttasunak zailttasun eta eragozpenak eragozpen, gorabehera eta krisialdixairi aurre egiñaz, herrittar pilliaren ilusiñuak eta lanak eutsi xaue luzaruan artzaiñen eta txakurren jai ederrari.

Danak aittaketia eziñezkua dala jakindda eta akats larri samarrak egitteko esparruan sartzen gariela konturatu arren, izen batzuk behintzat nabarmendu daigun: esaterako, Reyesen denporako **Jose Mari Agirrebaltzategi** abade mikrofonoduna, **Joxe Mari Leturia**, **Antonio Guridi Ipentza**, **Joxe Mari Urzelai**, **Bartolo Igartua Azkontegi**; geruagoko **Joxe Otalora** eta **Joxe Mari Arejolaleiba Gatxikarro** (Oñatin **Atxukarro**), **Manolo Irizar**, **Luis Azpiazu**, **Joxe Mari Igartua**, **Kepa Umerez**, **Agustin Olmedo**, **Karlos Galdos Otadui**, **Rafael Erostege Amantxio**, **Iñaki Zabala**, **Andoni Gartzia**, **Juan Luis Etxaniz**, **Aitor Garai**, aspaldixan jaialdixaren aurkezle moduan diharduen **Estepan Plazaola** eta iragoko hamarkadatan arduradun nagusixa dan **Joxe Mari Bengoa Urzabal**. Izen-zirrindara honetan emakukerik agerketan ez bada be, esan bihar da era anonimuaguan lagundu izan dauela txapelketa-egunian.

Nahiz eta azkenerako itzi dittugun, parte-hartzaille inportantienak falta dira: **txakurrak eta artzainak**, jakiña. Ipar eta Hego Euskal Herrittik, Biarnotik, Kataluniatik eta beste hainbat lekutatik hona etorritta, Oñatiko Naziñoarteko txapelketiaren ardatz eta anima diranak. Dozenaka protagonista dan-danak goguan dittugula eta euren omenez, **Bixente Urzelai Amiño** txantxikuarraren eta **Bat** eta **Greko** bere txakurren izenak gogoratuko dotsuegu.

Udal artxiboko Arzuaga fondoko argazki honetan Reyes Korkostegi eta Bixente Urzelai **Amiño** agiri dira. Eskerrak Estepan Plazaola eta Joxe Mari Bengoari samurtu doskuen informaziñuagatik

LASTER

I R E K I E R A B E R R I A



Uribarri auzoa 16 | T. 943 051 301 | www.soraluzehotela.eus